

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

*Azerlan eta Lege Araubide
Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

PRESIDENCIA

*Dirección de Estudios y
Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica*

23. Euskal Soziometroa

2003ko abendua



http://www1.euskadi.net/estudios_sociologicos

Aurkibidea

SARRERA	1	B – EGOERAREN BALORAZIOA	42
LABURPENA	6	• Euskal Herriko egoeraren balorazioa	43
ZEHAZTASUN TEKNIKOAK	11	• Euskal Herriko eta Espainiako estatuko egoeraren balorazioa	44
A – JARRERA POLITIKOAK	13	• Euskal Herriko eta Espainiako estatuko egoera politikoaren balorazioa.....	45
• Politikaren kontzeptua	14	• Euskal Herriko eta Espainiako estatuko egoera ekonomikoaren balorazioa.....	46
• Politikarekiko interesa	15	• Euskal Herriko eta Espainiako estatuko egoera sozialaren balorazioa.....	47
• Alderdi politikoren batenganako hurbiltasuna	17	• Euskal Herriko arazo nagusiak.....	48
• Ezker-eskuin ardatza	19	• Pertsonalki gehien eragiten duten arazoak	51
• Euskal herritar-espainiar ardatza	21	• Demokraziaren funtzionamendua Euskal Herrian eta Espainiako estatuan	54
• Euskal herritar sentimendua Euskal Herritik kanpo.....	24	• Administrazioarekiko poztasun maila	56
• Euskal identitatea	26	• Bizitza Euskal Autonomia Erkidegoan	58
• Espainiako estatuaren lurralde antolaketa	28		
• Independentziarekiko iritzia.....	30		
• Independentziari buruzko erreferenduma	32		
• País Vasco eta Euskal Herria kontzeptuak	34		
• Etorkizunerako nahiago den hizkuntza	35		
• Inguruko lurraldeekiko hurbiltasun sentimendua ..	37		
• Begikotasun politikoa	38		
• Buruzagi politikoen balorazioa	40		

Sarrera

Helburuak

Txosten hau 2003ko hirugarrena da, Euskal Soziometroen 23.a, eta EAEko **gizarte errealitatearen erretratu**a osatzen du.

Helburua, EAEko biztanleak nolakoak garen eta nola eboluzionatzen dugun jakitea da, bai eta Estatuko beste leku batzuetako bizilagunekin konparatuta ditugun parekotasunak eta aldeak zeintzuk diren jakitea ere. **Deskribapene**ko, **bilakaerako eta konparaketako** ikuspegi horrek gidatuko ditu honako orrialdeak.

Fidagarritasuna eta baliozkotasuna

Aztertutako datuen fidagarritasuna eta baliozkotasuna bost baliabide metodologikoren oinarriak bermatzen du:

- EAerako eta lurralde bakoitzerako **oso lagin adierazgarria** erabiltzea.
- Galdetegiko galderen arteko asko **estandarizatzea**, zilegitasun zientifikoa ziurtatuta duten nazioarteko eta Estatuko beste ikerketa batzuekin.
- Inkesta egin zaion pertsona bakoitzaren banakako informazioa testuinguruko **informazio metatuaren** laguntzaz aberastea, bizitokiko habitatari dagokionez.
- Inkestaren azkeneko emaitzen arteko ezberdintasunen eta **argitaratutako** bestelako **kanpo-erreferentzia objektiboen ebaluazioa**, datu egiaztagarriak daudenean. Hain zuzen, honako hauetaz ari gara: 2003ko maiatzeko Batzar Nagusietarako hauteskundeetako botoaren banaketaz, adinaz, sexuaz, euskalduntze mailaz, ikasketa mailaz eta lan egoeraz. Emaitzen konparazioa egiaztatu egin da, bai EAeri bai lurralde bakoitzari dagokionez.

- Inkestako datuak **aldagai soziodemografikoak eta jarrerakoak** kontuan hartuta **segmentatu** ditugu, hainbat gizarte kolektiboren artean dauden ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak kontuan hartuta.

Datuen egitura eta aurkezpena

Txostenaren egitura eta aurkezpena informazio blokeak deritzogunean oinarritzen da, diskurtso lineal klasikoaren aldean. Izan ere, txostenaren muina orrialdeka eskaintzen da: esparru bakoitzaren barruan hainbat adierazle soziologiko daude, eta adierazle bakoitza informazio bloke bat da, gehienez hiru orrialderekin:

- Guztizkoak: adierazle soziologikoaren emaitza orokorrak, bai eta aurreko azterketetako datuekiko konparaketa ere, posible bada.
- Kolektiboka: populazioaren erantzun orokorrak segmentatzea, soziometro honen barruan, adierazle soziologiko bakoitzean ezberdintasun gehien agertzen dituzten kolektiboen arabera, ezberdintasunak esanguratsuak izanez gero.
- Alderaketa geografikoa: bste autonomia erkidego batzuetako eta Espainiako estatuko datuekiko konparaketa.

Orrialde bakoitzean datu taula bat, deskribatzeko aipamen laburrak eta ilustratzeko grafiko bat (batzuetan) aurkezten dira.

Taula batzuetako beheko partean **indize** orokor bat azaltzen da, eta balio bakarraren bidez adierazle horren informaziorik garrantzitsuena neurtzen du. Indize horien arteko batzuk galdera baterako erantzunaren zenbait kategoriaren kenketa besterik ez dira (adibidez: poztasun balantzea administrazio instantzia bakoitzarekiko pozik daudenen eta pozik ez daudenen kultura da). Indize horien abantaila konparatutako kolektiboen ed/ee kopuru ezberdina indargabetzea da.

Galak

Azterketaren benetako helburua osatzen dute **eta tauletako ilaretan** azaltzen diren galderetan zehazten dira:

A – JARRERA POLITIKOAK

- **Politikaren kontzeptua:** politikaren identifikazioa, erakunde eta alderdien jardura bezala ala zerbait zabalagoa bezala.
- **Politikarekiko interesa:** politikarekiko adierazitako interesa.
- **Alderdi politikoren batekiko gertutasuna:** alderdi politikokoekiko hurbiltasun maila.
- **Ezker-eskuin ardatza:** norbere burua eskalan ezartzea, eskalako muturrak *ezker muturra* eta *eskuin muturra direlarik*.
- **Euskal herritar-espainiar ardatza:** norbere burua eskalan ezartzea, eskalako muturrak *euskal herritarra bakarrik* eta *espainiarra bakarrik* direlarik.
- **Euskal herritar sentimendua Euskal Herritik kanpo:** Espainiako estatuan edo atzerrian dagoenean, norbere burua eskalan ezartzea eskalako muturrak *euskal herritarra bakarrik* eta *espainiarra bakarrik* direlarik.
- **Euskal identitatea:** pertsona bat euskal herritartzat hartzeko bi baldintza garrantzitsuenak.
- **Estatuaren lurralde antolaketa:** Espainiako estatua antolatzeko modu desberdinei buruzko iritzia.
- **Independentziari buruzko iritzia:** Euskal Herriaren independentziari buruzko adostasun edo desadostasun maila.
- **Independentziari buruzko erreferenduma:** Euskal Herriaren independentziari buruzko balizko erreferendum batean emango lukeen botoa.

- **Pais Vasco eta Euskal Herria kontzeptuak:** Pais Vasco delakoa eta Euskal Herria osatzen duten lurraldeen identifikazioa.
- **Etorkizunerako nahiago den hizkuntza:** etorkizunean norberaren lurraldean hitz egin beharko litzatekeen hizkuntza.
- **Inguruko lurraldeekiko hurbiltasun sentimendua:** EAEn inguruko lurralde edo erregioekiko gertutasun sentimendua.
- **Begikotasun politikoa:** talde politiko bakoitzak eragiten duen begikotasun maila 0tik 10era.
- **Buruzagi politikoen balorazioa:** Euskal Herriko eta Espainiako estatuko buruzagi politiko nagusien balorazioa 0tik 10era.

B – EGOERAREN BALORAZIOA

- **Euskal Herriko eta Espainiako estatuko egoera politikoaren balorazioa:** Euskal Herriko eta Estatuko egoera politikoari buruzko iritzia.
- **Euskal Herriko eta Espainiako estatuko egoera ekonomikoaren balorazioa:** Euskal Herriko eta Estatuko egoera ekonomikoari buruzko iritzia.
- **Euskal Herriko eta Espainiako estatuko egoera sozialaren balorazioa:** Euskal Herriko eta Estatuko egoera sozialari buruzko iritzia.
- **Euskal herriko arazo nagusiak:** Euskal Herriko bi arazo nagusien identifikazio espontaneoak.
- **Pertsonalki gehien eragiten duten arazoak:** pertsonalki gehien eragiten dioten arazoaren identifikazio espontaneoak.
- **Demokraziaren funtzionamendua Euskal Herrian eta Espainiako estatuan:** Euskal Herrian eta Espainiako estatuan demokraziak duen funtzionamenduekiko poztasun maila.
- **Administrazioarekiko poztasuna:** udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Espainiako Gobernua eta Europako Batzordeari buruzko poztasun maila.
- **EAEn bizitzea:** EAEn, Espainiako estatuan edo atzerrian bizitzeari buruzko nahia.

Segmentatzeko aldagaiak

Beste alde batetik, segmentatzeko aldagai soziodemografikoak eta jarrerazkoak ditugu; inkestako gizarte kolektiboak bereizten dituzte eta **tauletako zutabeetan** azaltzen dira, dagokion aldagai soziologikoari ezberdintasun esanguratsurik eragiten badiote (letra etzanean azaltzen dira eratu diren azpi-kolektiboak):

- Lurraldeak: *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa*.
- Sexua: *gizonezkoa eta emakumezkoa*.
- Adin taldeak: *18-29, 30-45, 46-64 eta 65 urte edo gehiagokoak*.
- Udalerriaren tamaina: *txikia* (<10.000 biztanle), *ertaina* (10.000-120.000 biztanle) eta *hiriburua* (Gasteiz, Bilbo eta Donostia).
- Jatorria: *immigrantea* (EAEtik eta Nafarroako Foru Erkidegotik kanpo jaio bada), *bertakoa familia immigrantea* (erkidego bietako batean jaioa eta gurasoak immigranteak ditu), *bertakoa familia mistoa* (erkidego bietako batean jaioa eta aita edo ama immigrantea du), eta *bertakoa familia bertakoa* (erkidego bietako batean jaioa, bai eta gurasoak ere).
- Ikasketa maila: *lehen mailakoak baino gutxiago, lehen mailakoak, bigarren mailakoak eta goi mailakoak*.
- Lanbide nagusia: *lanean, langabezian, etxeko lanak, ikasten eta jubilatua*.
- Hautemandako klase soziala: *baxua* (klase erdikoa-baxua edo langilea), *erdikoa* (ertain-erdikoa) eta *altua* (goiko-erdiko klasea).
- Euskaraz jakitea: *ez* (ez daki ezer esaten), *zerbait* (zenbait hitz daki edo zerbait hitz egin dezake) eta *bai* (nahiko ondo edo zuzen hitz egiten daki).
- Euskal herritar-espainiar ardatza: *batez ere euskal herritarra* (euskal herritarra bakarrik eta espainiarra baino euskal herritarragoa); *euskal herritarra bezain espainiarra*; eta *batez ere espainiarra* (euskal herritarra baino espainiarragoa eta espainiarra bakarrik).

- Politikarekiko interesa: *batere ez; handirik ez; nolabaitekoa; handia*.
- Ezker-eskuin ardatza: *ezkerra* (ezker muturra + ezker + zentro ezkerre); *zentroa, eskuina* (eskuin muturra + eskuina + zentro eskuina); *ed/ee*.
- Begikotasun politikoa: begikotasunik handiena eragiten dion talde politikoa: *EAJ-PNV, PP, PSE-EE, EA, IU/EB, Aralar, Ezker abertzaleko beste talde batzuk, UA, Beste alderdi batzuk¹, batere ez, denek berdin eta Ed/ee*.

Informazioa segmentazio aldagai horiekin guztiekin bat aztertzen da, baina txostenean gurutzaketa esanguratsuenak besterik ez dira hartzen.

Bibliografia

Jarraian, kontu tekniko-metodologikoetarako nahiz beste esparru geografiko batzuekiko datuekin alderatzeko erabilgaitako ikerketa eta estatistiken arteko batzuk zerrendatuko dira:

- OBSERVATORIO POLÍTICO AUTONÓMICO (2003). *Sondeo de opinión 2002*.
- CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLOGICAS (2003) *Avance de barómetro de Septiembre*.

¹UAren eta *Beste alderdi batzuen* jarraitzaileen datuak ez dira komentatzen, horien kopuru txikia dela eta.

- GABINETE DE PROSPECCIÓN SOCIOLÓGICA (1997): *Identidad Vasca*.
- GABINETE DE PROSPECCIÓN SOCIOLÓGICA (2000): *Situación Sociopolítica del País Vasco*.
- EUSTAT (2001). *Nomenclaturas y códigos*. Vitoria-Gasteiz: Eustat.
- EUSTAT (2001): *Euskal AE-ko kale izendegia*. Vitoria-Gasteiz: Eustat.

Txostenaren egitura

Aurkezpen horren ostean, emaitzen laburpena, azterketaren zehaztasun teknikoak eta bibliografia, eta ondoren jadanik azaldutako eduki esparru guztiak gaineratzen dira.

Laburpena

Puntuz puntu

ZER HARTZEN DUTE EAE-KO BIZTANLEEK POLITIKATZAT? ETA ZENBATERAINO INTERESATZEN ZAIE?

Biztanleen %60k politikatzat bizitza publikoari dagokion guztia hartzen dute eta %19k kontzeptu murriztagoa dute, instituzioen eta alderdi politikoen jarduerari lotutakoa.

EAEko biztanleen %37k interes handia edo nolabaitekoa dute politikaz, %19k ez dute interes handirik eta %44k ez daukate batere interesik.

ZENBATERAINOKO HURBILTASUNA SENTITZEN DUTE EAE-KO HIRI-TARREK ALDERDI POLITIKOEKIKO?

Gehienak ez dira alderdi politikoeikiko batere hurbil sentitzen (%51). Oso hurbil edo hurbil xamar sentitzen direnak %16 dira. Politikarekiko zenbat eta interes handiagoa eduki, orduan eta gertuago sentitzen dira alderdi politikoren batetik.

NOLA KOKATZEN DUTE EUREN BURUA EZKER-ESKUIN ARDATZEAN?

EAEko herritarren %45ek ezkertiarzat dute euren burua (ezker muturrekoa+ezkerrekoa+zentro ezkerrekoa) eta %8k eskuinekotzat (eskuin muturrekoa+eskuinekoa+zentro eskuinekoa). %17k zentrokoak direla diote eta %30k ez dute euren burua inon kokatzen.

BATEZ ERE EUSKAL HERRITARTZAT EDO ESPAINIARTZAT DUTE EUREN BURUA?

EAEko biztanleen %47k gehien bat euskal herritartzat dute beren burua (euskal herritarra bakarrik+euskal herritarra espainiarra baino gehiago), %35ek euskal herritar bezain espainiartzat eta %11k gehien bat espainiartzat (espainiarra bakarrik+espainiarra euskal herritarra baino gehiago). Espainiako estatuko beste lurralderen batean daudenean, %59 gehienbat eus-

kal herritar sentitzen dira. Atzerrian %46 dira gehien bat euskal herritar sentitzen direnak.

ZEIN DIRA PERTSONA BAT EUSKAL HERRITARTZAT HARTZEKO BALDINTZA NAGUSIAK?

EAEko biztanleek aipatzen dituzten baldintza nagusiak euskal herritar sentitzea (%64) eta Euskal Herrian bizi eta lan egitea (%50) dira, Euskal Herrian jaio izatea (%28), euskaraz hitz egitea (%11), euskal familia baten ondorengo izatea (%10) edo alderdi nazionalista bati botoa ematearen (%3) gaineratik.

ESPAINIAKO ESTATUAREN ZEIN LURRALDE ANTOLAKETA NAHIAGO LUKETE?

EAEko biztanleen %30en ustez egokiena autonomia erkidegoei autodeterminaziorako eskubidea onartuko liekeen Estatu bat litzateke, %26k nahiago lukete gaur egun baino autonomia gehiago luketen erkidegoez osatutako Estatu eta %26k adostasun handiagoa dute gaur egungo sistemarekin. %5ek bakarrik nahi lukete gaur egungoa baino Estatu zentralizatuagoa.

NOLAKO JARRERA DUTE EUSKAL HERRIAREN INDEPENDENTZIAREKIKO?

%28 independentziaren alde azaltzen dira, %23 egoeraren arabera alde edo kontra egongo lirateke eta %34 aurka agertzen dira.

Independentziari buruzko balizko erreferendum batean, biztanleen %37k independentziaren aldeko botoa emango luketela diote. %31k aurka bozkatuko lukete eta %13k ez lukete botorik emango. %18k ez dute bere asmoen berri eman.

ZEIN LURRALDEREKIN IDENTIFIKATZEN DITUZTE PAÍS VASCO DELAKOA ETA EUSKAL HERRIA?

EAEko biztanleen %54k País Vasco delakoa EAEko hiru lurraldeekin identifikatzen dute (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarekin), %33k horiez gain Nafarroa eta Iparraldea ere sartzen dituzte País Vasco kontzeptuan.

Euskal Herriari dagokionean, %52k EAEko hiru lurraldeak, Nafarroa eta Iparraldea sartzen dituzte eta %32k EAEko hiru lurraldeak bakarrik.

Hau da, Euskal Herria kontzeptua País Vasco kontzeptua baino zabalgoa dela dirudi.

ETORKIZUNEAN ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGIN BEHARKO LITZATE-KEELA USTE DUTE?

Herritar gehienek ustez (%89) etorkizunean beren lurraldean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzateke. %7 bakarrik dira euskal elebakartasunaren aldekoak eta %2 erdal elebakartasunaren aldekoak.

ZENBATERAINOKO HURBILTASUNA SENTITZEN DUTE INGURUKO ERREGIO EDO ERKIDEGOEKIKO?

EAEko biztanleek Nafarroa eta Iparraldearekiko adierazten dute hurbiltasunik handiena (%66 eta %52) eta ondoren Errioxa (%48), Kantabria (%45) eta Burgosekiko (%38).

NOLA BALORATZEN DITUZTE TALDE POLITIKOAK ETA HORIEN BURUZAGIAK?

EAEko biztanleek ez diote talde politiko bakar bati nahikoa nota ematen. Puntuaziorik altuenak EAJ-PNV (4.6), EA (3.9) eta IU-EBri (3.4) dagozkie, ondoren Aralar (2.9), PSE-EE (2.7) eta ezker abertzaleko beste taldeei (2.3). Puntuaziorik okerrenak PP (1.8) eta UArenak (1.4) dira.

Buruzagi politikoaren artean, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria da nahikoa nota duen bakarra (5.1). Ondoren datoz Begoña Errazti (3.6), Javier Ma-

drago (3.5), Xabier Arzalluz (3.4), Patxi Zabaleta (3.3), Gaspar Llamazares (3.0), José Luis Rodríguez Zapatero (2.7), Patxi López (2.6) eta Arnaldo Otegi (2.3). Puntuaziorik baxuenak José María Aznar (1.7), Mariano Rajoy (1.7) Carlos Iturgaitz (1.6) eta Enriqueta Benitok (1.2) jaso dituzte.

ZEIN IRITZI DUTE EUSKAL HERRIAREN EGOERAZ? ETA ESPAINIAKO ESTATUAREN AZ?

EAEko biztanle gehienek aburuz Euskal Herriko egoera politikoa txarra da (%67) eta ekonomikoa eta soziala aldiz ona (%63 eta %52 hurrenez hurren).

Euskal Herriarena baino okerrago baloratzen da Espainiako estatuaren egoera: Estatuako egoera politiko, ekonomikoa eta soziala txarra dela esaten dute %70ek, %47k eta %44k hurrenez hurren.

ZEINTZU DIRA EUSKAL HERRIKO ARAZO NAGUSIAK? ETA JENDEARI PERTSONALKI GEHIEN ERAGITEN DIETENAK?

EAEko herritarren ustez, Euskal Herriko arazorik garrantzitsuenak indarkeria eta terrorismoa (%56) eta langabezia (%41) dira. Ondoren gatazka eta egoera politikoa (%31) eta etxebizitza (%19) datoz.

Euskal herritarrei pertsonalki gehien eragiten dieten arazoak langabezia (%26) eta etxebizitza (%20) dira.

ZEIN IRITZI DUTE DEMOKRAZIAK EUSKAL HERRIAN ETA ESPAINIAKO ESTATUAN DUEN FUNTZIONAMENDUAZ?

Biztanleen %39 ez daude oso pozik Euskal Herrian demokraziak funtzionatzen duen moduarekin eta %19 ez daude batere pozik. %33 oso edo nahikoa pozik daude.

Estatuan demokraziak duen funtzionamenduari buruz berriz, %34 ez daude oso pozik eta %31 ez daude batere pozik. %24k diote oso edo nahikoa pozik daudela. Euskal Herriko demokraziaren funtzionamenduerikiko poztasun maila handiagoa da Estatuarekikoa baino.

ZEIN IRITZI DUTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI BURUZ?

Hobekien baloratutako administrazioak udalak (%67 pozik), foru aldundiak (%65) eta Eusko Jaurlaritza (%61) dira. Espainiako Gobernua gaizki baloratzen da (%58 ez pozik). Europako Batzordeari buruz poztasun falta txiki bat ere bada, baina batez ere ezjakintasuna da nagusi (%41 ed/ee).

EAEKO BIZTANLEEK NON BIZI NAHIKO LUKETE?

%85 ez lirateke EAETik kanpora joango bizitzera, bizi eta lan baldintza berberak mantentzeko aukera izango balute ere.

Aurreko neurketekin alderatuz

Azken urteotan gutxi aldatu dira neurtutako dimentsio gehienak.

Azken neurketa honetan aldaketarik nabarmenetakoa Euskal Herriaren **independentziari** buruzko iritziei dagokie, independentziaren aldeko jarrera dutenen portzentajea %22tik %28ra pasa baita azken sei hilabeteotan.

Gainera, independentziari buruzko balizko **erreferendum** baten aurrean zalantzatsu agertzen direnak gero eta gutxiago dira; %18 bakarrik dira zein boto emango luketen esan ez dutenak, 2002ko maiatzean %26 ziren bitartean.

Talde politikoen balorazioari dagokionean, EAJ-PNV eta EAK bakarrik lortu dute duela sei hilabete baino puntuazio hobea. PSE-EE eta PPK 1995ean bakarrik jaso zuten oraingoa bezain puntuazio baxua.

Hizkuntzaren aldetik EAEn etorkizunerako aukerarik egokiena **elebitasuna** dela uste dutenen portzentajea ere igo egin da. Etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela diotenak %89 dira; 2000n %80 ziren.

Herritarrek Euskal Herriko **egoera politikoa** txarra dela diote oraindik, baina lehen baino gutxiago dira iritzi hori azaldu dutenak, iaz %80 izan baziren, aurtun %67 dira eta.

Euskal Herriko **demokraziaren** funtzionamenduarekiko balorazioa ere hobetu egin da eta Estatuko demokraziaren funtzionamenduari buruzkoak berriz okerrera egin du.

Beste autonomia erkidego batzuekin eta Estatuarekin alderatuz

Komunitateko partaide izateko sentimendua handiagoa da EAEn, Andaluzian, Katalunian eta Galizian baino. Beren burua gehienbat euskal herritarizat dutenak %47 dira; aldiz beste erkidegoetan gehienek espainiarizat bezain erkidegokotzat dute beren burua.

Espainiako estatuaren lurralde antolaketari dagokionean, euskal herritarrek erkidego autonomikoen autonomia maila handiagoa ahalbidetzen duten ereduakiko aldeotasuna adierazten dute; Estatuko eta Katalunia, Andaluzia eta Galiziako biztanleek aldiz gaur egungo ereduarekiko adostasun handiagoa adierazten dute.

Bai EAEko eta bai Estatuko hiritarren ustez **arazo** garrantzitsuenak indarkeria eta terrorismoa eta langabezia dira, baina EAEkoentzat hurrenkera horretan, eta Estatukoentzat berriz alderantzizkoan. Estatuan gehien aipatutako arazoetariko batzuk (delinkuentzia eta segurtasun gabezia, inmigrazioa, arazo ekonomikoak) askoz ere gutxiagotan aipatzen dira EAEn. Hemen aldiz gehiagotan aipatzen dira egoera politikoa eta etxebizitza.

EAEko eta Estatuko herritarrak bat datoz pertsonalki gehien eragiten dien arazoa langabezia dela esatean, baina pertzepzio desberdinak dituzte beste kasu hauetan: EAEkoek etxebizitza eta egoera politikoa gehiagotan aipatzen dituzte eta Estatukoek arazo ekonomikoak eta segurtasun gabezia.

Azken buruan

EAEko biztanleek politikarekiko **interes** txikia eta alderdi politikoekeko hurbiltasun maila apala azaltzen dute, alderdi bakar bati ez diotelarik gainera nahikoa balorazioa ematen. Buruzagi politikoen artean Ibarretxe lehendakariak bakarrik lortzen du nahikoa.

Herritar gehienek **ezkertiarizat** dute beren burua eta gehienbat **euskal herritar** izateko sentimendu subjektiboa adierazten dute, EAEko biztanleen iritziz, sentimendu hori delarik gainera garrantzitsuena pertsona bat euskal herritarizat hartu ahal izateko. Sentimendu hori Espainiako estatuko beste komunitate autonomo batzuetan baino zabalduago dago EAEn.

Euskal herritar gehienek **Espainiako estatuaren lurraldea antolatze**ko gustukoak dituzten ereduak autonomia handiagoa eta are erkidego autonomikoen autodeterminazioa ere onartuko lituzketenak dira.

Independentziari buruzko jarrera garbik ez dago, baina herritar gehienek adierazten dute gai horri buruzko erreferenduma egingo balitz, parte hartuko luketela.

EAEko herritarrek Euskal Herriko **egoera ekonomikoa** ondo ikusten dute, egoera soziala erdipurdi eta egoera politikoa gaizki. Estatuari buruz galde-tuta, balorazio guztiak okerragoak dira.

Bai Euskal Herriko **demokraziaren** funtzionamendua baita Estatuarena ere gaizki ikusten dituzte EAEko biztanleek.

Euskal Herriko **arazorik** garrantzitsuenak terrorismoa eta indarkeria eta langabezia direla diote herritarrek. Hala ere, pertsonalki gehien eragiten dietenak langabezia eta etxebizitzaren arazoa direla esaten dute.

EAEko biztanleak **pozik** daude udalekin, foru aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin eta ez daude pozik Espainiako Gobernuarekin.

Dena dela, beste leku batean bizi eta lan baldintza berberak balitu ere, jende gehienak nahiago luke **EAEn bizitzen jarraitu**.

Zehaztasun teknikoak

Zehaztasun teknikoak

Informazio bilketa **2003ko urriaren 7a eta 18a bitartean** egin zen –biak barne- galdesorta egituratu eta itxia erabiliz, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetarako lagin adierazgarri bati etxean egindako banakako elkarriketen bidez.

Lagina, 18 urte edo gehiagoko biztanleriari zuzendua, honela banatu zen: 613 lagun Araban, 1272 Bizkaian eta 963 Gipuzkoan, hau da 2848 elkarriketatu guztira. Gizabanakoen hautaketa prozedura polietapiko eta estratifikatuaren bidez egin zen, 20na inkestaz osaturiko ausazko ibilbideak erabiliz –214 laginketa abiapunturekin²–, ondoren pertsonak sexuaren, adinaren eta lan egoeraren arabera kuoten bidez aukeratuz. Emaizak hiru lurraldeetako biztanleria zentsuaren eta 2003ko Batzar Nagusietarako hauteskundeetan emandako boto errearen arabera haztatu dira.

Ikerketaren **diseinua, emaitzen azterketa eta txostenaren idazketaren** ardura Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagokio soilik. Informazio bilketa Askatasunaren hiribidea, 17-19, 2004 Donostia helbidean dagoen *Iker-talde* enpresak egin zuen.

2848 pertsonako lagin honi dagokion **lagin errorearen estimazioa**, erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria, $\pm\%1,87$ koa da EAE osorako, $\%95,5$ eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik.

Inkesten $\%48,6$ an telefono bidezko **kontrola** egin da eta $\%6,5$ etxean bertan kontrolatu dira. Horrez gain, jasotako galdetegi guztietan kontrol informatiko egokiak egin dira –logika, koherentzia eta heinari buruzkoak–.

² Hasiera puntu fisiko zehatza, Eustaten kale izendegia erabiliz, hauteskunde sekzio bakoitzeko (horiek baitira azterketarako guneko geografikorik txikiak) kale “zatiak” multzotik ausaz atera zen.

A - Jarrera politikoak

- **Politikarekiko interesa**
- **Alderdi politikoren batenganako hurbiltasuna**
- **Ezker-eskuin ardatza**
- **Euskal herritar-espainiar ardatza**
- **Euskal herritar sentimendua Euskal Herritik kanpo**
- **Euskal identitatea**
- **Espainiako estatuaren lurralde antolaketa**
- **Independentziarekiko iritzia**
- **Independentziari buruzko erreferenduma**
- **País Vasco eta Euskal Herria kontzeptuak**
- **Etorkizunerako nahiago den hizkuntza**
- **Inguruko lurraldeekiko hurbiltasun sentimendua**
- **Begikotasun politikoa**
- **Buruzagi politikoen balorazioa**

Jarrera politikoak

Politikaren kontzeptua

(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA)


Zer ulertzen duzu dela politika?									
	EAE ES 03 URR	IKASKETA MAILA				POLITIKAREKIKO INTERESA			
		<LEHEN MAILAKOAK	LEHEN MAILAKOAK	BIGARREN MAILAKOAK	GOI MAILAKOAK	BATERE EZ	HANDIRIK EZ	NOLABAITEKOA	HANDIA
ERAKUNDEEN ETA ALDERDI POLITIKOEN JARDUNA.....	19	17	18	20	22	20	21	19	14
BIZITZA PUBLIKOARI ERAGITEN DION GUZTIA	60	45	60	63	65	50	66	69	73
BESTE ERANTZUNAK	8	8	7	8	8	9	4	7	11
EZ DAKIT ZER DEN	9	24	11	5	3	15	6	2	1
Ed/Ee.....	4	5	5	4	2	5	3	2	1
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100

EAEKO BIZTANLEEN %60K POLITIKAREN IDEIAN BIZITZA PUBLIKOARI DAGOKION GUZTIA SARTZEN DUTE, %19K INSTITUZIOEN ETA ALDERDI POLITIKOEN JARDUERAREKIN LOTZEN DUTE ETA %8K BESTELAKO ERANTZUNAK EMAN DITUZTE. %9K DIOTE EZ DAKITELA POLITIKA ZER DEN. BESTELAKO ERANTZUNEN ARTEAN POLITIKARI BURUZKO BALORAZIO NEGATIBO UGARI, AGINTARIEN ORDEKARITZARI BURUZKO AIPAMENAK ETA BESTELAKOAK DAUDE.

Ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, orduan eta gehiago dira politika bizitza publikoari dagokion guztia dela uste dutenak eta instituzio eta alderdi politikoaren jardura dela uste dutenak. Lehen mailako ikasketak baino baxuagoak dituztenen %24k ez daki politika zer den.

Politikarekiko interesa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta joera handiagoa dago politika bizitza publikoari eragiten dion guztia dela pentsatzeko (inolakoa interesik ez dutenen %50 eta oso interes handia dutenen %73).

Zer ulertzen duzu dela politika?



Jarrera politikoak Politikarekiko interesa

(GUZTIZKOAK)


Nolako interesa duzu politikaz?

	EAE ES 1995	EAE ES 1996	EAE ES 1997	EAE ES 1998	EAE ES 1999	EAE ES 2000	EAE ES 2001	EAE ES 2002	EAE ES FEB 03	EAE ES ABR 03	EAE ES 03 URR
INTERES HANDIA	8	8	7	9	9	10	10	9	10	9	9
NOLABAITEKO INTERESA	28	27	21	28	28	23	26	25	28	25	28
EZ INTERES HANDIRIK	26	23	20	24	24	20	24	22	19	20	19
BATERE INTERESIK EZ	38	42	50	39	38	47	39	43	42	45	44
Ed/EE	0	0	1	1	1	1	1	1	1	1	1
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
POLITIKAREKIKO INTERES MAILA *	36	35	28	37	37	33	36	34	38	34	37

* POLITIKAREKIKO INTERES MAILA: INTERES HANDIA+NOLABAITEKO INTERESA

- EAeko BIZTANLEEN %44K DIOTE EZ DUTELA INOLAKO INTERESIK POLITIKAREKIKO, %19K EZ DUTE INTERES HANDIRIK, %28K NOLABAITEKO INTERESA DUTE ETA %9K INTERES HANDIA.
- Politikarekiko interes maila ez da asko aldatu azken 8 urteotan.

Nolako interesa duzu politikaz?



Jarrera politikoak

Politikarekiko interesa

(KOLEKTIBOKA)


Nolako interesa duzu politikaz?

	EAE ES 03 URR	SEXUA		IKASKETA MAILA				HAUTEMANDAKO KLAZE SOZIALA			EUSKAL HERRITAR-ESPANIAR ARDATZA			EZKER-ESKUIN ARDATZA			
		GIZON- EZKOA	EMAKU- MEZKOA	<LEHEN MAILAKOAK	LEHEN MAILAKOAK	BIGARREN MAILAKOAK	GOI MAILAKOAK	BAXUA	ERDIKOA	ALTUA	BATEZ ERE EUSKAL HERRITARRA	E. HERRITARRA BEZAIN ESPAINIARRA	BATEZ ERE ESPAINIARRA	EZKERRA	ZENTROA	ESKUINA	ED/EE
INTERES HANDIA	9	11	6	2	4	10	18	7	9	13	12	5	4	13	6	12	2
NOLABAITEKO INTERESA.....	28	29	26	14	21	31	40	22	30	39	35	22	20	39	25	30	11
EZ INTERES HANDIRIK.....	19	19	19	17	18	20	18	17	20	14	18	19	22	19	25	24	14
BATERE INTERESIK EZ.....	44	40	48	64	57	38	23	54	41	35	35	53	53	28	44	34	71
Ed/EE	1	1	1	3	0	1	0	0	1	0	1	1	0	0	0	0	2
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
POLITIKAREKIKO INTERES MAILA *	37	40	32	16	25	41	58	29	39	52	47	27	24	52	31	42	13

* POLITIKAREKIKO INTERES MAILA: INTERES HANDIA+NOLABAITEKO INTERESA

- Gizonezkoek emakumezkoek baino interes handiagoa adierazten dute politikarekiko. Gizonezkoen %40k interes handia edo nolabaitekoa dutela diote; aldiz emakumeen %32k adierazi dute jarrera hori.
- Ikasketak maila zenbat eta altuagoa orduan eta handiagoa da politikarekiko interesa. Lehen mailako ikasketak baino baxuagoak dituztenen artean politikarekiko interes handia edo nolabaitekoa dutenak %16 badira, goi mailako ikasketak dituztenen artean %58 izatera iristen dira. Klase sozialarekin ere antzera gertatzen da, klase baxukoaren artean interesa agertzen dutenak %29 diren bitartean, klase altukoaren artean %52 direlarik.
- Bere burua gehienbat euskal herritartzat dutenek politikarekiko interes handiagoa adierazten dute, euskal herritar bezain espainiartzat dutenek baino eta gehienbat espainiartzat dutenek baino.
- Beren burua ezkeriartzat dutenek gainerakoek baino interes handiagoa dute politikarekiko, zentrokoek dute interes txikiena eta eskuinekoak tarteko posizioetan daude.

Nolako interesa duzu politikaz?



Jarrera politikoak

Alderdi politikoren batenganako hurbiltasuna

(GUZTIZKOAK)


Partidu politiko batetik hurbil sentitzen zara?

	EAE ES 1995	EAE ES 1996	EAE ES 1997	EAE ES 1998	EAE ES 1999	EAE ES 2000	EAE ES 2001	EAE ES 2002	EAE ES FEB 03	EAE ES ABR 03	EAE ES 03 URR
OSO HURBIL.....	4	4	4	4	5	5	5	5	6	5	5
NAHIKOA HURBIL.....	9	10	8	9	10	10	9	10	12	9	11
APUR BAT.....	18	18	13	18	19	17	17	17	17	17	18
EZ OSO HURBIL.....	15	12	15	17	18	16	18	16	15	15	13
EZ, INOLA ERE EZ.....	53	54	59	50	47	53	50	50	48	52	51
Ed/EE.....	1	1	1	1	2	1	1	1	1	1	2
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
HURBILTASUN MAILA *.....	13	14	12	13	15	15	14	15	18	14	16

* HURBILTASUN MAILA: OSO + NAHIKOA HURBIL

- EAeko biztanle gehienak (%51) ez dira inongo alderdi politikorekiko batera hurbil sentitzen. %16 oso edo nahikoa hurbil sentitzen dira eta %18k nolabaiteko hurbiltasuna sentitzen dute alderdi politikoren batekiko. %13k diote ez direla oso hurbil sentitzen.
- Alderdi politikoren batekiko hurbiltasun maila ez da asko aldatu, 90. hamarkadaren amaieran pixka bat igo zenetik.

Partidu politikoren batetik hurbil sentitzen zara?



Jarrera politikoak

Alderdi politikoren batenganako hurbiltasuna


(KOLEKTIBOKA)

Partidu politiko batetik hurbil sentitzen zara?

	EAE ES 03 URR	HAUTEMAND. KLASA SOZIALA			EUSKAL HERRITAR-ESPANIAR ARDATZA			POLITIKAREKIKO INTERESA				EZKER-ESKUI ARDATZA			
		BAXUA	MEDIA	ALTA	BATEZ ERE EUSKAL HERRITARRA	E. HERRITARRA BEZAIN ESPANIARRA	BATEZ ERE ESPANIARRA	BATERE EZ	HANDIRIK EZ	NOLABAI- TEKOA	HANDIA	EZKERRA	ZENTROA	ESKUINA	Ed/Ee
OSO HURBIL	5	4	5	9	9	2	1	1	2	5	38	7	4	12	1
NAHIKOA HURBIL	11	9	11	16	17	5	7	4	7	21	22	15	9	22	3
APUR BAT	18	12	20	20	22	13	18	7	20	34	14	22	19	26	7
EZ OSO HURBIL	13	13	14	10	12	17	10	6	30	15	7	15	16	11	10
EZ, INOLA ERE EZ	51	61	48	43	40	61	62	80	41	23	18	40	52	28	75
Ed/Ee	2	1	2	3	1	2	1	2	0	1	1	1	0	2	4
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
HURBILTASUN MAILA *	16	13	16	25	26	7	8	5	9	26	60	22	13	34	4

HURBILTASUN MAILA: OSO + NAHIKOA HURBIL

- Klase sozial altuko jendeak alderdi politikoeikiko hurbiltasun maila handiagoa dute erdi mailakoek eta baxukoek baino. Klase altukoek %25 alderdiren batekiko oso edo nahikoa hurbil sentitzen dira, erdi mailakoek artean %16 eta klase baxukoek artean %13.
- Beren burua gehienbat euskal herritarizat dutenak dira alderdi politikoeikiko hurbilen sentitzen direnak, horien artean %26 oso edo nahikoa hurbil sentitzen dira.
- Espero zitekeen moduan politikarekiko zenbat eta interes handiagoa izan, alderdi politikoren batekiko hurbiltasun maila ere altuagoa da. Honela, politikarekiko interes handia dutenen %60 alderdiren batetik hurbil sentitzen dira.
- Alderdi politikoeikiko hurbiltasunik txikiena sentitzen dutenak zentrokoak dira (%13), ondoren ezkerrekoak (%22) eta azkenik eskuinekoak dira hurbilen sentitzen direnak (%34).



Jarrera politikoak

Ezker-eskuin ardatza

(GUZTIZKOAK)


Eskuinekoa ala ezkerrekoa jotzen duzu zeure burua?

	EAE ES 1995	EAE ES 1996	EAE ES 1997	EAE ES 1998	EAE ES 1999	EAE ES 2000	EAE ES 2001	EAE ES 2002	EAE ES FEB 03	EAE ES ABR 03	EAE ES 03 URR
ESKUIN MUTURREKOA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
ESKUINEKOA	7	6	6	5	5	6	6	5	5	5	3
ZENTRO ESKUINEKOA.....	3	4	4	4	4	5	4	4	3	6	5
ZENTROKOA.....	15	14	15	15	15	15	17	17	17	17	17
ZENTRO EZKERREKOA.....	8	8	9	8	7	9	8	8	9	9	9
EZKERREKOA	37	37	35	36	37	36	36	33	35	35	35
EZKER MUTURREKOA	1	1	2	2	2	1	1	1	1	1	1
Ed/EE	30	30	29	29	29	28	28	31	30	28	30
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
EZKERTIARTASUN BALANTZEA *	36	36	36	37	37	35	35	33	37	34	37

* EZKERTIARTASUN BALANTZEA: EZKERREKOEN % (EZKER MUTURREKOA+EZKERREKOA+ZENTRO EZKERREKOA) – ESKUINEKOEN % (ESKUIN MUTURREKOA+ESKUIN+ZENTRO-ESKUINEKOA)

- BIZTANLEEN %45EK EZKERTIARTZAT (EZKER MUTURREKOA+ EZKERREKOA+ZENTRO EZKERREKOA) DUTE EUREN BURUA, %17K ZENTROKOTZAT ETA %8K ESKUINDARTZAT (ESKUIN MUTURREKOA+ESKUINEKOA+ZENTRO ESKUINEKOA). %30EK EZ DUTE BEREN BURUA KOKATU GAI HONETAN.
- EAEKO GIZARTEAREN EZKERTIARTASUN BALANTZEA 37KOA DA, HAU DA EZKERREKOEN %45 – ESKUINEKOEN %8.
- EAEko gizartearen ezkertiaratasun maila nahikoa egonkor mantentzen da denboran zehar.

Eskuinekoa ala ezkerrekoa jotzen duzu zeure burua?



Jarrera politikoak

Ezker-eskuin ardatza

(KOLEKTIBOKA)


Eskuinekoa ala ezkerrekoa jotzen duzu zeure burua?

	EAE ES 03 URR	LURRALDEA			IKASKETA MAILA				EUSKAL HERRITAR-ESPAINIAR ARDATZA			POLITIKAREKIKO INTERESA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	<LEHEN MAILAKOAK	LEHEN MAILAKOAK	BIGARREN MAILAKOAK	GOI MAILAKOAK	BATEZ ERE EUSKAL HERRITARRA	E. HERRITARRA BEZAIN ESPAINIARRA	BATEZ ERE ESPAINIARRA	BATERE EZ	HANDIRIK EZ	NOLABAITEKOA	HANDIA
ESKUIN MUTURREKOA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
ESKUINEKOA	3	5	4	2	3	5	3	2	3	2	8	3	4	3	5
ZENTRO ESKUINEKOA	5	4	5	4	5	4	4	6	3	6	8	3	6	6	6
ZENTROKOA	17	17	18	14	20	17	13	20	13	20	24	17	22	15	12
ZENTRO EZKERREKOA	9	10	10	9	6	8	8	16	11	8	10	6	8	15	15
EZKERREKOA	35	33	33	40	27	29	42	40	45	29	14	22	37	49	54
EZKER MUTURREKOA	1	1	1	1	1	1	1	0	1	1	0	1	1	1	1
ED/EE	30	30	29	31	39	36	29	16	24	33	35	48	22	12	6
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
EZKERTIARTASUN BALANTZEA *	37	35	35	44	26	29	44	48	51	30	8	23	36	56	59

* EZKERTIARTASUN BALANTZEA: EZKERREKOEN % (EZKER MUTURREKOA+EZKERREKOA+ZENTRO EZKERREKOA) – ESKUINEKOEN % (ESKUIN MUTURREKOA+ESKUIN+ZENTRO-ESKUINEKOA)

- Gipuzkoarrak, bizkaitarrak eta arabarrak baino ezkertiarragoak dira; ezkertiartasun balantzea 44koa da Gipuzkoan eta 35ekoa bai Bizkaian eta baita Araban ere.
- Ezkertiartasun balantzeak gora egiten du ikasketa mailaren arabera. Horrela, lehen mailako ikasketak baino baxuagoak dituztenen artean balantzea 26koa bada, goi mailako ikasketak dituztenen artean 48koa da.
- Euskal herritar edo espainiar sentitzeak ere badu harremanik ezkertiartasunarekin. Ezkertiarrak gehiago dira beren burua gehienbat euskal herritartzat dutenen artean (51ko balantzea), euskal herritar bezain espainiartzat dutenen artean (30eko balantzea) eta gehienbat espainiartzat dutenen artean baino (8ko balantzea).
- Politikarekiko interesa zenbat eta handiagoa izan orduan eta altuagoa da halaber ezkertiartasun maila, horrela politikarekiko inolako interesik ez dutenen artean ezkertiartasun balantzea 23koa bada, 59koa da interes handia dutenen artean.

Eskuinekoa ala ezkerrekoa jotzen duzu zeure burua?



Jarrera politikoak

Euskal herritar-espainiar ardatza

(GUZTIZKOAK)

Euskal herritarra edo espainiarra sentitzearen artean, nola jotzen duzu zeure burua?


	EAE ES 1995	EAE ES 1996	EAE ES 1997	EAE ES 1998	EAE ES 1999	EAE ES 2000	EAE ES 2001	EAE ES 2002	EAE ES Ots 03	EAE ES Api 03	EAE ES 03 URR
E. HERRITARRA BAKARRIK.....	30	30	33	32	31	31	27	30	31	31	30
E. HERRITARRA, ESPAINIARRA BAINO GEHIAGO	16	14	16	15	15	16	15	16	16	16	17
E. HERRITARRA BEZAIN ESPAINIARRA.....	36	37	32	34	35	38	38	36	36	36	35
ESPAINIARRA, E. HERRITARRA BAINO GEHIAGO	5	5	5	4	4	4	5	4	3	3	6
ESPAINIARRA BAKARRIK.....	10	10	8	8	6	7	8	7	7	7	5
Ed/EE.....	4	4	7	8	7	5	7	7	7	7	6
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
GEHIENBAT EUSKAL HERRITARRA *	46	44	49	47	46	47	42	46	47	47	47

* GEHIENBAT EUSKAL HERRITARRA: EUSKAL HERRITARRA BAKARRIK + EUSKAL HERRITARRA, ESPAINIARRA BAINO GEHIAGO

BEREN BURUA GEHIENBAT EUSKAL HERRITARTZAT DUTE EAEKO BIZTANLEEN %47K (%30 EUSKAL HERRITARRAK BAKARRIK + %17 EUSKAL HERRITARRAK, ESPAINIARRAK BAINO GEHIAGO). %35K EUSKAL HERRITAR BEZAIN ESPAINIARTZAT DUTE EUREN BURUA ETA %11K GEHIENBAT ESPAINIARTZAT (%6 ESPAINIARRAK EUSKAL HERRITARRAK BAINO GEHIAGO + %5 ESPAINIARRAK BAKARRIK).

EAEko herritarrek beren buruaz duten euskal herritar edo espainiar kontsiderazioa ez da asko aldatu azken 8 urteotan. Azken neurketa honetan gehienbat euskal herritar sentitzen direnen portzentajea bere ohiko neurrietara itzultzeko joera sendotu da, 2001ean izandako jaitsieraren ondoren.

Euskal herritarra edo espainiarra sentitzearen artean, nola jotzen duzu zeure burua?



Jarrera politikoak

Euskal herritar-espainiar ardatza

(KOLEKTIBOKA)

<i>Euskal herritarra edo espainiarra sentitzearen artean, nola jotzen duzu zeure burua?</i>											
	EAE ES 03 URR	LURRALDEA			EUSKARAREN JAKINTZA			JATORRIA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EZ	ZERBAIT	BAI	ETORKINA	BERTAKOA, FAMILIA ETORKINA	BERTAKOA, FAMILIA MISTOA	BERTAKOA, FAMILIA BERTAKOA
E. HERRITARRA BAKARRIK.....	30	16	28	40	12	24	57	5	18	25	52
E. HERRITARRA, ESPAINIARRA BAINO GEHIAGO ...	17	19	16	17	13	18	20	12	15	23	20
E. HERRITARRA BEZAIN ESPAINIARRA	35	38	39	28	44	42	18	45	52	39	22
ESPAINIARRA, E. HERRITARRA BAINO GEHIAGO ...	6	7	6	6	12	5	1	15	5	4	2
ESPAINIARRA BAKARRIK.....	5	10	5	4	11	3	0	13	4	2	1
Ed/Ee.....	6	9	6	5	8	8	3	10	6	6	4
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
GEHIENBAT EUSKAL HERRITARRA *.....	47	35	44	57	25	42	77	17	33	48	72


* GEHIENBAT EUSKAL HERRITARRA: EUSKAL HERRITARRA BAKARRIK + EUSKAL HERRITARRA, ESPAINIARRA BAINO GEHIAGO

Gipuzkoarren artean gehienbat euskal herritar izatearen sentimendua zabalduago dago bizkaitar eta arabarren artean baino. Gipuzkoako biztanleen %57k bere burua euskal herritartzat bakarrik edo euskal herritartzat espainiar-tzat baino gehiago dauka; sentimendu hori bizkaitarren %44k eta arabarren %35ek daukate.

Euskararen ezagutzak badu loturik euskal herritar sentimenduarekin. Euskaraz dakitenen %77k gehienbat euskal herritartzat dute euren burua (%57k euskal herritartzat bakarrik). Euskaraz pixka bat dakitenen artean %42 dira sentimendu hori adierazten dutenak eta euskaraz batere ez dakitenen artean %25. Azken talde horretan gehien zabaldutako sentimendua euskal herritar bezain espainiar izatearena da (%44).

Beren burua gehienbat euskal herritartzat hartzea maizago gertatzen da EAEn edo Nafarroan sortu eta gurasoak ere bertan sorturikoak dituztenen artean (%72), hemen sortuak izan eta gurasoetako bat beste nonbaitekoa dutenen artean baino (48%), hemen sortuak izan eta guraso inmigranteak dituztenen artean baino (%33) eta inmigranteen artean baino (%17). Azkena aipatutako bi taldeetan, gehien zabaldutako sentimendua euskal herritar bezain espainiar izatearena da.

Euskal herritarra edo espainiarra sentitzearen artean, nola jotzen duzu zeure burua?



Jarrera politikoak

Euskal herritar-espainiar ardatza

(ALDERAKETA GEOGRAFIKOA)

Euskal herritarra/andaluziarra/katalana/galziarra eta espainiarra sentitzearen artean, nola jotzen duzu zeure burua?


	EAE ES 03 URR	KATALUNIA 02 AZA	GALIZIA 03 MAR	ANDALUZIA 03 UZT
EUSKAL HERRITARRA/ ANDALUZIARRA/KATALANA/GALIZIARRA BAKARRIK.....	30	13	7	4
EUSKAL HERRITARRA/ ANDALUZIARRA/KATALANA/GALIZIARRA, ESPAINIARRA BAINO GEHIAGO	17	23	23	16
EUSKAL HERRITARRA/ ANDALUZIARRA/KATALANA/GALIZIARRA BEZAIN ESPAINIARRA.....	35	42	58	65
ESPAINIARRA, EUSKAL HERRITARRA/ ANDALUZIARRA/KATALANA/GALIZIARRA BAINO GEHIAGO	6	8	6	6
ESPAINIARRA BAKARRIK	5	11	4	7
Ed/Ee	6	3	2	2
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100	100	100
GEHIENBAT EUSKAL HERRITARRA/ANDALUZIARRA/KATALANA/GALIZIARRA*	47	36	30	20

*GEHIENBAT EUSKAL HERRITARRA/ANDALUZIARRA/KATALANA/GALIZIARRA: EUSKAL HERRITARRA/ANDALUZIARRA/KATALANA/GALIZIARRA BAKARRIK + EUSKAL HERRITARRA/ANDALUZIARRA/KATALANA/ GALIZIARRA , ESPAINIARRA BAINO GEHIAGO.

**ITURRIAK: CADPEA (CENTRO DE ANÁLISIS Y DOCUMENTACIÓN POLÍTICA Y ELECTORAL DE ANDALUCÍA), ICPS (INSTITUT DE CIÈNCIES POLÍTQUES I SOCIALS) ETA DEPARTAMENTO DE CIENCIA POLÍTICA DE LA UNIVERSIDAD DE SANTIAGO DE COMPOSTELA.

EAEko herritarrek euren nazionalitatearen sentimendu subjektibo indartsuagoa dute alderatutako beste erkidegoetakoek baino. EAEn ez beste erkidego guztietan gehiago dira beren burua euren erkidegokotzat bezain espainiarizat jotzen dutenak, gehienbat beren erkidegokotzat dutenak baino.

Nola jotzen duzu zeure burua?



Jarrera politikoak

Euskal herritar sentimendua Euskal Herritik kanpo

(GUZTIZKOAK)

Espainiako estatuko beste lekuren batera ateratzen zarenean, zeure burua gehienbat euskal herritartzat ala gehienbat espainiartzat jotzen duzu?


	EAE IDE 97 MAR *	EAE ES 01URR	EAE ES 03 URR
GEHIENBAT EUSKAL HERRITARTZAT	62	58	59
GEHIENBAT ESPAINIARTZAT	20	18	21
BESTELAKO ERANTZUNAK	15	19	14
Ed/Ee	3	5	7

Eta atzerrira ateratzen zarenean, zeure burua gehienbat euskal herritartzat ala gehienbat espainiartzat jotzen duzu?

	EAE IDE 97 MAR *	EAE ES 01URR	EAE ES 03 URR
GEHIENBAT EUSKAL HERRITARTZAT	53	47	46
GEHIENBAT ESPAINIARTZAT	28	27	32
BESTELAKO ERANTZUNAK	15	19	13
Ed/Ee	4	7	9
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100	100

* IDE MAR 97: EUSKO JAURLARITZAKO PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEAK EGINDAKO "IDENTIDAD VASCA" IKERKETA.

Euskal herritar sentimendua Euskal Herritik kanpo



EAEKO BIZTANLE GEHIENAK (%59) BATEZ ERE EUSKAL HERRITAR SENTITZEN DIRA ESPAINIAKO ESTATUKO BESTE LURRALDEETARA JOATEN DIRENEAN. %21 BATEZ ERE ESPAINIAR SENTITZEN DIRA ETA %14K BESTELAKO ERANTZUNAK EMAN DITUZTE. ATZERRIAN DAUDENEAN GUTXIXEAGO DIRA BATEZ ERE EUSKAL HERRITAR SENTITZEN DIRENAK (%46), TALDERIK HANDIENA OSATZEN BADUTE ERE. ATZERRIAN DAUDENEAN BATEZ ERE ESPAINIAR SENTITZEN DIRENAK %32 DIRA.

Espainiako estatuan edo atzerrian daudenean gehienbat euskal herritar sentitzen diren EAEko biztanleen portzentajeak duela bi urtetik hona ia berdin mantendu dira, 1997an gertatutako beharakadaren ondoren. Gehienbat espainiar sentitzen direnen portzentajea igo egin da duela bi urteko neurketatik hona, 1997ko mailatik gora egin duelarik.

Jarrera politikoak

Euskal herritar sentimendua Euskal Herritik kanpo

(KOLEKTIBOKA)

<i>Espainiako Estatuko beste lekuren batera ateratzen zarenean, zeure burua gehienbat euskal herritartzat ala gehienbat espainiartzat jotzen duzu?</i>											
	EAE ES 03 URR	LURRALDEA			EUSKARAREN JAKINTZA			JATORRIA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Ez	ZERBAIT	BAI	ETORKINA	BERTAKOA, FAMILIA ETORKINA	BERTAKOA, FAMILIA MISTOA	BERTAKOA, FAMILIA BERTAKOA
GEHIENBAT EUSKAL HERRITARTZAT	59	50	56	67	37	57	85	26	54	63	80
GEHIENBAT ESPAINIARTZAT	21	27	21	17	37	19	4	46	19	13	8
BESTELAKO ERANTZUNAK	14	14	14	13	17	15	8	18	18	16	8
Ed/Ee	7	9	9	3	9	9	2	11	9	8	4
<i>Eta atzerrira ateratzen zarenean, zeure burua gehienbat euskal herritartzat ala gehienbat espainiartzat jotzen duzu?</i>											
GEHIENBAT EUSKAL HERRITARTZAT	46	32	44	54	23	42	75	16	38	45	67
GEHIENBAT ESPAINIARTZAT	32	40	33	28	48	34	12	54	35	30	18
BESTELAKO ERANTZUNAK	13	16	13	13	17	14	9	17	19	15	9
Ed/Ee	9	11	10	5	12	10	4	12	9	9	6
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

- EAeko hiru lurraldeetan gehiengo osatzen dute Espainiako estatuan daudenean gehienbat euskal herritar sentitzen direnek. Gipuzkoarren artean dago sentimendu hori adierazten dutenen portzentajerik altuena (67%), ondoren bizkaitarren artean (%56) eta azkenik arabarren artean (%50). Atzerrian daudenean, aurreko kasuan baino neurri txikiagoan bada ere, gehienbat euskal herritar sentitzen direnena da talderik handiena Gipuzkoan (%54) eta Bizkaian (%44). Araban aldiz, gehiago dira atzerrian daudenean gehienbat espainiar sentitzen direnak (%40), gehienbat euskal herritar sentitzen direnak baino (%32).
- Euskaraz jakiteak lotura du EAetik kanpo egondakoan euskal herritar edo espainiar sentitzearekin. Bai Espainiako estatuan daudenean, baita atzerrian daudenean ere, euskaraz dakitenek gehienbat euskal herritar sentitzeko joera handiagoa dute (%85 eta %75) euskaraz pixka bat dakitenek (%57 eta %42) eta batere ez dakitenek (%37 eta %23) baino. Azken talde horretan gehiago dira atzerrian daudenean gehienbat espainiar sentitzen direnak.
- EAEn edo Nafarroan sortutakoak eta gurasoak ere bertakoak dituztenak gehienbat euskal herritar sentitzen dira bai Espainiako estatuan daudenean (%80) baita atzerrian daudenean ere (%67). Sentimendu hori gutxixeago hedatuta dago beste taldeetan: EAEn edo Nafarroan sortua izan eta gurasoetako bat kanpokoa dutenen artean, Estatuan eta atzerrian daudenean gehienbat euskal herritar sentitzen direnek %63 eta %45 osatzen dute, hemen jaiotakoak eta gurasoak inmigranteak dituztenen artean %54 eta %38 hurrenez hurren eta inmigranteen artean %26 eta %16. Azken horien artean talderik handiena gehienbat espainiar sentitzen direnek osatzen dute, bai Estatuko beste lekuetan daudenean (%46) eta baita atzerrian daudenean ere (%54).

Jarrera politikoak

Euskal identitatea

(GUZTIZKOAK)

Ondoko baldintzetatik zeintzuk dira, zure ustez, pertsona bat euskal herritartzat jotzeko beharrezkoak diren biak?*

	EAE IDE 97 MAR **	EAE ES 01 URR	EAE ES 03 URR
EUSKAL HERRITAR SENTITZEA.....	64	66	64
EUSKAL HERRIAN BIZI ETA LAN EGITEA.....	47	53	50
EUSKAL HERRIAN JAIOTZEA.....	27	26	28
EUSKARAZ HITZ EGITEA.....	21	12	11
EUSKAL FAMILIA BATEN ONDORENGOA IZATEA	17	13	10
ALDERDI NAZIONALISTA BATI BOTOA EMATEA	3	2	3


* PORTZENTAJEEN BATURA EZ DA 100, BALDINTZA BAKOITZA LEHENENGO EDO BIGARREN LEKUAN AIPATU DUTEN INKESTATU KOPURUARI DAGOKIOLAKO.

** IDE 97 MAR: EUSKO JAURLARITZAKO PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEAK EGINDAKO "IDENTIDAD VASCA" IKERKETA.

EAEKO BIZTANLEEN USTEZ, PERTSONA BAT EUSKAL HERRITARTZAT HARTZEKO BALDINTZARIK GARRANTZITSUENAK *EUSKAL HERRITAR SENTITZEA* (%64) ETA, *EUSKAL HERRIAN BIZI ETA LAN EGITEA* (%50) DIRA. INKESTATUEN %28K AIPATU DUTE *EUSKAL HERRIAN SORTUA IZATEA*, %11K *EUSKARAZ HITZ EGITEA* ETA %10EK *EUSKAL FAMILIA BATEN ONDORENGOA IZATEA*. %3K AIPATU DUTE *ALDERDI NAZIONALISTA BATI BOTOA EMATEA*, PERTSONA BAT EUSKAL HERRITARTZAT JOTZEKO BALDINTZA BEZALA.

Euskal herritar sentitzea eta *Euskal Herrian bizi eta lan egitea* dira, oraindik ere pertsona bat euskal herritartzat hartzeko garrantzi handiena duten baldintzak, EA-Eko biztanleen ustez. Bi baldintza horiek lehenagoko neurketetan adina aipatu dira oraingoan ere. *Euskal familia baten ondorengoa izatea* edo *euskaraz hitz egitea* norbait euskal herritartzat hartzeko baldintza garrantzitsuak direla uste dutenen kopuruak berriz behera egin du.

Euskal herritartzat jotzeko beharrezkoak diren baldintzak



Jarrera politikoak

Euskal identitatea

(KOLEKTIBOKA)

Ondoko baldintzetatik zeintzuk dira, zure ustez, pertsona bat euskal herritartzat jotzeko beharrezkoak diren biak?*

	EAE ES 03 URR	LURRALDEA			EUSKARAREN JAKINTZA			EUSKAL HERRITAR-ESPAINIAR ARDATZA			JATORRIA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	Ez	ZERBAIT	Bai	BATEZ ERE EUSKAL HERRITARRA	E. HERRITARRA BEZAIN ESPAINIARRA	BATEZ ERE ESPAINIARRA	ETORKINA	BERTAKOA, FAMILIA ETORKINA	BERTAKOA, FAMILIA MISTOA	BERTAKOA, FAMILIA BERTAKOA
EUSKAL HERRITAR SENTITZEA.....	64	54	66	64	58	62	74	75	59	42	57	58	68	70
EUSKAL HERRIAN BIZI ETA LAN EGITEA.....	50	54	52	43	58	48	42	45	58	47	58	53	51	43
EUSKAL HERRIAN JAIOTZEA	28	36	29	24	29	34	21	25	33	34	24	40	34	26
EUSKARAZ HITZ EGITEA	11	8	9	16	6	8	21	17	6	9	6	8	11	16
EUSKAL FAMILIA BATEN ONDORENGOA IZATEA	10	10	11	10	10	11	9	9	11	14	11	9	7	11
ALDERDI NAZIONALISTA BATI BOTOA EMATEA.....	3	3	3	2	2	2	4	4	1	3	3	2	3	3

* PORTZENTAJEEN BATURA EZ DA 100, BALDINTZA BAKOITZA LEHENENGO EDO BIGARREN LEKUAN AIPATU DUTEN INKESTATU KOPURUARI DAGOKIOLAKO.

- Arabarrek besteek baino gutxiago aipatzen dute *euskal herritar sentitzea* baldintza subjektiboa pertsona bat euskal herritartzat hartua izateko baldintza bezala; horrela, baldintza hori, *Euskal Herrian bizi eta lan egitea* adina aipatu dute Arabako biztanleek. Lurralde horretan besteetan baino sarriago aipatu da *Euskal Herrian jaiotzea* baldintza. Gipuzkoan beste lurraldeetan baino jende gutxiago dago *Euskal Herrian bizi eta lan egitea* jotzen duenik baldintza garrantzitsuenen artean eta aldiz, beste leketan baino gehiago dira *euskaraz hitz egiteari* pertsona bat euskal herritartzat hartu ahal izateko garrantzia ematen diotenak.
- Euskaraz dakitenek besteek baino garrantzi handiagoa ematen diote baten bat euskal herritartzat hartzeko *euskal herritar sentitzeari* (%74) eta *euskaraz hitz egiteari* (%21). Euskaraz pixka bat dakitenek besteek baino sarriago aipatzen dute *Euskal Herrian jaiotzea* (%34), eta euskaraz ez dakitenek aldiz *Euskal Herrian bizi eta lan egitea* (%58) azpimarratzen dute.
- Beren burua gehienbat euskal herritartzat dutenek gainerakoek baino sarriago aipatzen dute *euskal herritar sentitzea* eta *euskaraz hitz egitea*, pertsona bat euskal herritar kontsideratzeko baldintzat. Beren burua euskal herritar bezain espainiarizat dutenek gainerakoek baino garrantzi handiagoa ematen diote *Euskal Herrian bizi eta lan egiteari* eta *Euskal Herrian jaiotzeari*, eta beren burua gehienbat espainiarizat dutenek aldiz *Euskal Herrian jaiotzea* eta *euskal familia baten ondorengoa izatea* gainerakoek baino gehiago aipatzen dituzte.
- EAEn edo Nafarroan sortuak izan eta gurasoak ere bertakoak dituztenek sarriago aipatzen dituzte *euskal herritar sentitzea* (%70) eta *euskaraz hitz egitea* (%16) baldintzak. Gurasoetako bat edo biak inmigranteak dituzten eta EAEn edo Nafarroan sortutakoek besteak baino gehiago aipatzen dute *Euskal Herrian jaiotzea* baldintza (%34% eta %40 hurrenez hurren). Inmigranteek besteek baino gehiagotan aipatzen dute *Euskal Herrian bizi eta lan egitea*.

Jarrera politikoak

Espainiako estatuaren lurralde antolaketa

(GUZTIZKOAK ETA ALDERAKETA GEOGRAFIKOA)

Espainiako estatuaren lurraldea antolatzeko modu ezberdinen artean, zein duzu zuk gustukoena?

	EAE ES 03 URR	ESPAINIAKO ESTATUA* 03 IRA	ANDALUZIA * 03 Eka	KATALUNIA * 02 AZA	GALIZIA * 03 MAR
GAUR EGUNGOA BAINO ZENTRALIZATUAGOA DEN ESTATU BAT	5	10	10	11	7
GAUR EGUNGOA BEZALA, KOMUNITATE AUTONOMOekin OSATUTAKO ESTATUA	26	51	58	52	62
GAUR EGUN BAINO AUTONOMIA MAILA HANDIAGOA DUTEN KOMUNITATE AUTONOMOekin OSATUTAKO ESTATUA	26	24	19	17	18
KOMUNITATE AUTONOMOEI AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA ONARTZEN DIEN ESTATUA	30	8	4	17	4
Ed/Ee	13	7	9	3	9
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100


* ANDALUZIAN, KATALUNIAN ETA GALIZIAN ERANTZUN AUKERAK ONDOKOAK IZAN ZIREN: AUTONOMIARIK GABEKO, GOBERNU ZENTRALDUN ESTATUA / GAUR EGUNGOA BEZALAKO KOMUNITATE AUTONOMODUN ESTATUA / KOMUNITATEEK AUTONOMIA HANDIAGOA IZANGO LUKETEN ESTATU FEDERALA / NAZIOEI INDEPENDENTE IZATEKO AUKERA EMANGO LIEKEEN ESTATUA. ESPAINIAKO ESTATUKO IKERKETAN ERANTZUN AUKERAK ONDOKOAK IZAN ZIREN: AUTONOMIARIK GABEKO, GOBERNU ZENTRAL BAKARREKO ESTATUA / GAUR EGUNGOA BEZALAKO KOMUNITATE AUTONOMODUN ESTATUA / KOMUNITATEEK GAUR EGUN BAINO ESKUMEN GEHIAGO LITUZKETEN ESTATUA / KOMUNITATE AUTONOMOEI ESTATU INDEPENDENTE BILAKATZEKO AUKERA ONARTUKO LIEKEEN ESTATUA. FORMULAZIOAK BERDIN-BERDINAK EZ DIREN ARREN, ANTZEKOTASUNA BADUTENEZ, ALDERAKETARAKO DUTEN BALIOGATIK AURKEZTEN DIRA HEMEN.

ITURRIAK: CADPEA (CENTRO DE ANÁLISIS Y DOCUMENTACIÓN POLÍTICA Y ELECTORAL DE ANDALUCÍA), ICPS (INSTITUT DE CIÈNCIES POLÍTQUES I SOCIALS) ETA DEPARTAMENTO DE CIENCIA POLÍTICA DE LA UNIVERSIDAD DE SANTIAGO DE COMPOSTELA.

EAEKO BIZTANLEEN %30EN USTEZ ESPAINIAKO ESTATUAREN LURRALDE ANTOLAKETARAKO EREDURIK EGOKIENA, AUTONOMIA ERKIDEGOEI AUTODETERMINAZIORAKO ESKUBIDEA ONARTUKO LIEKEEN ESTATUA LITZATEKE. %26K AUTONOMIA ERKIDEGOEI AUTONOMIA MAILA HANDIAGOA EMANGO LIEKEEN ESTATUA NAHIGO LUKETE ETA BESTE %26K GAUR EGUNGOA BEZALAKO KOMUNITATE AUTONOMOEK OSATUTAKO ESTATUA. %5EK NAHIGO LUKETE GAUR EGUNGOA BAINO ESTATU ZENTRALIZATUAGO BAT ETA %13K EZ DUTE IRITZIRIK AZALDU.

Autonomia mailarik handiena dakarten bi ereduak (*Gaur egungoa baino autonomia maila handiagoko erkidegoek osatutako Estatu* eta *Komunitateei autodeterminazio eskubidea onartuko liekeen Estatu*) adostasun maila handiagoa jasotzen dute EAEn alderatutako gainerako komunitateetan baino. Bai Andaluzian, Katalunian eta Galizian eta baita Espainiako estatuan ere, gaur egungo lurralde antolaketa ereduak askoz ere adostasun maila handiagoa sortarazten du EAEn baino.

Espainiako estaturen lurraldea antolatzeko modu ezberdinetatik, zein duzu gustukoena? (EAE)



Jarrera politikoak

Espainiako Estatuaren lurralde antolaketa

(KOLEKTIBOKA)


Espainiako estatuaren lurraldea antolatzeko modu ezberdinen artean, zein duzu zuk gustukoena?

	EAE ES 03 Urrr	LURRALDEA			ADIN TALDEAK				BEGIKOTASUN POLITIKOAK*											
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	18-29	30-45	46-64	>=65	EAJ/ PNV	PP	PSE- EE	EZK. ABERTZAL- EKO BESTE	ARALAR	EA	IU	UA	BESTE BATZUK	BAT ERE EZ	DENAK	Ed/Ee
ESTATU ZENTRALIZATUAGOA	5	4	6	4	4	4	6	4	2	15	8	0	0	1	2	0	0	5	4	7
GAUR EGUNGOA BEZALAKOA	26	30	27	21	21	22	30	32	15	50	45	4	9	7	21	0	4	34	32	24
AUTONOMIA MAILA HANDIAGOAREKIN	26	26	27	25	27	29	25	23	32	18	29	8	15	33	42	41	36	23	20	26
AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA ONARTZEN DUENA	30	28	26	37	35	35	28	20	43	4	8	84	75	55	25	59	39	17	15	17
Ed/Ee	13	12	14	12	13	10	11	20	8	13	10	4	1	5	10	0	21	21	29	27
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* UAREN ETA BESTE ALDERDI BATZUEN JARRAITZAILEEN KOPURUAK OSO TXIKIAK DIRENEZ, EUREI DAGOZKIEN DATUAK EZ DIRA KOMENTATU ETA KONTU HANDIZ IRAKURRI BEHAR DIRA.

- Gipuzkoarrek, bizkaitarrek eta arabarrek baino aldeketasun handiagoa adierazi dute komunitate autonomoei autodeterminazio eskubidea onartuko liekeen Estatu ereduarekiko. Araban berriz, gainerako lurraldeetan baino gehiago dira gaur egungo eredua nahiago dutenak.
- Zenbat eta zaharrago, orduan eta gutxiago dira autonomia maila handiagoa dakarten ereduarekiko adostasuna agertu dutenak. 18tik 29 urtera bitartekoen artean eta 30etik 45era bitartekoen artean %35ek komunitateei autodeterminazio eskubidea onartuko liekeen Estatuaren alde egiten dute. Aldiz iritzi hori dutenak %28 dira 46tik 64 urtera bitartekoen artean eta %20, 64 urte baino gehiago dituztenen artean.
- Autodeterminazio eskubidea onartuko lukeen Estatuarekiko aldeketasun handiena adierazi dutenak Aralarren jarraitzaileak (%75) eta ezker abertzaleko beste talde batzuenak (%84) dira. EAJ-PNV eta EAren jarraitzaileen artean ere hori da iritzirik zabalduena (%43 eta %55), baina gaur egungoa baino autonomia gehiago luketen erkidegoek osatutako Estatu nahiago dutenak ere asko dira (%32 eta %33 hurrenez hurren). EB-IUren jarraitzaileen artean azken hori da aukerarik gustukoena eta PSE-EE eta PPren jarraitzaileen artean berriz gaur egungo eredua da adostasunik handiena sortzen duena (%45 eta %50 hurrenez hurren).

Espainiako estaturen lurraldea antolatzeko modu ezberdinetatik, zein duzu gustukoena?



Jarrera politikoak Independentziarekiko iritzia

(GUZTIZKOAK)

Euskal Herriaren independentziari dagokionez, zu...?


	EAE JJ 1988 *	EAE JJ 1989 *	EAE ES 1998	EAE ES 1999	EAE ES 2000	EAE ES 2001	EAE ES 2002	EAE ES FEB 03	EAE ES API. 03	EAE ES 03 URR
ADOS ZAUDE.....	25	24	25	26	24	21	22	22	22	28
EGOERAREN ARABERA ADOS EDO KONTRA EGONGO ZINATEKE	37	37	36	35	35	35	31	33	32	23
KONTRA ZAUDE	29	32	24	26	29	32	31	32	33	34
Ed/Ee	9	7	15	12	12	12	15	13	13	15
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* 88AN ETA 89AN HONELA GALDETU ZEN: "KORRONTE POLITIKO BATZUEK EUSKAL HERRIAREN INDEPENDENTZIA BILATZEN DUTE, ZU PERTSONALKI...?".

EAEKO BIZTANLEEN %28 EUSKAL HERRIAREN INDEPENDENTZIAREN ALDE AGERTU DIRA, %23 ADOS EDO KONTRA EGONGO LIRATEKE INDEPENDENTZiarekin, EGOERAREN ARABERA, ETA %34 KONTRA AGERTZEN DA. %15EK EZ DUTE IRITZIRIK AZALDU.

Duela urte batzuk baino jende gehiago agertzen da independentziaren alde, 88tik izandako mailarik altuenera iritsi delarik independentziarekiko aldeko-tasuna. Aldiz, askoz gutxiago dira egoeraren arabera independentziaren alde edo kontra egongo liratekeela diotenak, 1988tik izan den mailarik baxuenean gelditu delarik.

Euskal Herriaren independentziari dagokionez, zu...?



Jarrera politikoak

Independentziarekiko iritzia

(KOLEKTIBOKA)

Euskal Herriaren independentziari dagokionez, zu...?

	EAE ES 03 URR	LURRALDEA			EUSKAL HERRITAR-ESPANIAR ARDATZA			BEGIKOTASUN POLITIKOA*											
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	BATEZ ERE EUSKAL HERRITARRA	E. HERRITARRA BEZAIN ESPAINIARRA	BATEZ ERE ESPAINIARRA	EAJ/ PNV	PP	PSE- EE	EZKER ABERTZALEKO BESTE	ARALAR	EA	IU	UA	BESTE BATZUK	BAT ERE EZ	DENAK	Ed/EE
ADOS ZAUDE	28	19	26	35	51	7	3	43	3	6	88	53	47	20	0	32	14	12	17
EGOERAREN ARABERA ADOS EDO KONTRA	23	23	23	21	26	23	9	28	7	14	9	34	33	35	0	17	26	28	19
KONTRA ZAUDE	34	47	35	28	11	52	78	18	81	68	1	8	10	30	75	15	38	19	36
Ed/EE	15	12	16	15	12	18	10	12	9	12	1	5	10	16	25	36	23	41	28
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100


* UAREN ETA BESTE ALDERDI BATZUEN JARRAITZAILEEN KOPURUAK OSO TXIKIAK DIRENEZ, EUREI DAGOKIEN DATUAK EZ DIRA KOMENTATU ETA KONTU HANDIZ IRAKURRI BEHAR DIRA.

Arabarren artean gehien zabalduko iritzia independentziarekiko desadostasuna da (%47) eta Gipuzkoarren artean aldiz independentziarekiko adostasuna (%35). Bizkaian, EAEko batezbestekoaren antzerakoak dira iritzia.

Beren burua gehienbat euskal herritartzat dutenen erdia baino gehiago Euskal Herriaren independentziaren alde daude. Beren burua euskal herritar bezain espainiartzat dutenen eta gehienbat espainiartzat dutenen artean iritzirik hedatuena independentziaren kontrakoa da (%52 eta %78 hurrenez hurren). Beren burua gehienbat euskal herritartzat dutenen eta euskal herritar bezain espainiartzat dutenen artean asko xamar dira independentziaren alde edo kontra egongo liratekeenak, egoeraren arabera (%26 eta %23 hurrenez hurren).

PPren eta PSE-EEren jarraitzaileak dira independentziaren kontra gehien azaltzen direnak (%81 eta %68 hurrenez hurren). EB-IUren jarraitzaileen artean talderik handiena egoeraren arabera independentziaren alde edo kontra egongo liratekeenek osatzen dute (%35) eta EAJ-PNV, EA, Aralar eta ezker abertzaleko beste talde batzuen jarraitzaileen artean berriz independentziaren aldekoak dira nagusi (%43, %47, %53 eta %88 hurrenez hurren).

Euskal Herriaren independentziari dagokionez, zu...?



Jarrera politikoak

Independentziari buruzko erreferenduma

(GUZTIZKOAK)


Espainiako Gobernuak onartuko balu euskal gizarteak independentziari buruz erabakitzea eta erreferenduma egongo balitz, zuk zeuk zelako botoa emango zenuke?

	EAE ES 02 MAI	EAE ES 03 URR
INDEPENDENTZIAREN ALDEKOA	34	37
INDEPENDENTZIAREN KONTRAKOA	29	31
ABSTENITU EGINGO NINTZATEKE	11	13
Ed/EE	26	18
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100

EAEKO BIZTANLEEN %37K INDEPENDENTZIAREN ALDE BOZKATUKO LUKETE BALIZKO ERREFERENDUM BATEAN, %31K KONTRA BOZKATUKO LUKETE ETA %13 ABSTENITU EGINGO LITZATEKE. BESTE %18K EZ DUTE BEREN IRITZIA ADIERAZI.

2002ko maiatzeko datuekin alderatuz, ugaldu egin dira bai alde bozkatuko luketenak baita kontra bozkatuko luketenak eta botorik emango ez luketenak ere. Askok gutxitu dira (%36tik %18ra) independentziari buruzko balizko erreferendum batean zer egingo luketen ez dakitenak edo erantzuten ez dutenak.

Espainiako Gobernuak onartuko balu euskal gizarteak independentziari buruz erabakitzea eta erreferenduma egongo balitz, zuk zeuk zelako botoa emango zenuke?



Jarrera politikoak

Independentziari buruzko erreferenduma


(KOLEKTIBOKA)

Espainiako Gobernuak onartuko balu euskal gizarteak independentziari buruz erabakitzea eta erreferenduma egongo balitz, zuk zeuk zelako botoa emango zenuke?

	EAE ES 03 URR	LURRALDEA			ADIN TALDEAK				UDALERRIAREN TAMAINA			EUSKAL HERRITAR-ESPAINIAR ARDATZA		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	18-29	30-45	46-64	>=65	TXIKIA	ERTAINA	HIRIBURUA	BATEZ ERE EUSKAL HERRITARRA	E. HERRITARRA BEZAIN ESPAINIARRA	BATEZ ERE ESPAINIARRA
INDEPENDENTZIAREN ALDEKOA	37	28	35	44	44	40	32	29	53	35	30	66	11	5
INDEPENDENTZIAREN KONTRAKOA	31	45	31	25	25	31	36	33	20	32	37	9	50	71
ABSTENITU EGINGO NINTZATEKE.....	13	8	15	13	13	14	13	14	11	15	13	8	18	17
ED/EE.....	18	19	19	18	17	15	19	24	16	18	21	17	21	8
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

- Gipuzkoarren artean daude balizko erreferendum batean independentziaren alde bozkatzeko asmoa luketen herritarren portzentajerik altuenak (%44), eta arabarren artean kontra bozkatuko luketenen portzentajerik altuenak (%45). Bizkaitarrak EAEko batezbestekotik hurbil daude.
- Zenbat eta zaharrago izan, orduan eta txikiagoa da independentziaren alde bozkatuko lukeen jende kopurua. 64 urtetik gorakoek ia laurdenak ez dakite edo ez dute esaten balizko erreferendum horretan zer egingo luketen.
- Udalerri txikienetako biztanleek agertzen dute independentziaren alde bozkatzeko asmo gehien (%53) eta hiriburuetakoez gutxien (%30). Hiriburuetan gehiago dira kontra bozkatuko luketenak alde bozkatuko luketenak baino.
- Beren burua gehienbat euskal herritartzat dutenen %66k independentziaren aldeko botoa emango luke. Beren burua euskal herritar bezain espainiartzat dutenen edo gehienbat espainiartzat dutenen artean gehiago dira independentziaren aurkako botoa emango luketenak (%50 eta %71 hurrenez hurren).

Espainiako Gobernuak onartuko balu euskal gizarteak independentziari buruz erabakitzea eta erreferenduma egongo balitz, zuk zeuk zelako botoa emango zenuke?



Jarrera politikoak

País Vasco eta Euskal Herria kontzeptuak

(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA)

País Vasco hitza entzunda, zein herrialderekin identifikatzen duzu?

	EAE ES 03 URR	LURRALDEA			EUSKAL HERRITAR-ESPAINIAR ARDATZA			BEGIKOTASUN POLITIKOA*											
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZ- KOA	BATEZ ERE EUSKAL HERRITARRA	E.HERRITARRA BEZAIN ESPAINIARRA	BATEZ ERE ESPAINIARRA	EAJ/ PNV	PP	PSE- EE	EZKER ABERTZAL- EKO BESTE	ARALAR	EA	IU	UA	BESTE BATZUK	BAT ERE EZ	DENAK	Ed/EE
ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOA.....	54	56	59	44	33	73	78	43	80	77	16	30	31	51	66	39	61	63	55
ARABA, BIZKAIA, GIPUZKOA ETA NAFARROA.....	8	10	8	7	9	7	8	10	6	8	4	4	12	11	0	11	9	4	7
ARABA, BIZKAIA, GIPUZKOA, NAFARROA ETA IPARRALDEA.....	33	27	29	43	54	15	7	43	7	10	78	65	51	36	0	45	25	24	26
EZ DAKIT ZER DEN.....	1	2	1	2	1	1	3	1	2	1	0	0	2	0	0	0	2	2	3
ASMAKERIA DA.....	0	0	0	1	0	0	1	0	0	1	0	1	1	1	0	0	1	0	0
BESTE ERANTZUN BATZUK.....	2	4	1	2	1	2	1	2	2	1	0	0	3	1	34	5	2	3	1
EZ DU ERANTZUTEN.....	2	1	2	2	1	2	2	0	2	2	0	0	0	1	0	0	1	4	8

Euskal Herria hitza entzunda, zein herrialderekin identifikatzen duzu?

ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOA.....	32	33	34	28	16	47	54	21	56	50	6	5	11	21	0	14	41	43	38
ARABA, BIZKAIA, GIPUZKOA ETA NAFARROA.....	7	12	7	6	6	8	9	7	10	8	2	2	9	12	66	5	7	6	6
ARABA, BIZKAIA, GIPUZKOA, NAFARROA ETA IPARRALDEA.....	52	44	49	60	73	33	22	65	22	30	90	93	75	64	34	81	40	29	36
EZ DAKIT ZER DEN.....	3	5	3	2	1	3	7	1	5	4	0	0	2	1	0	0	5	5	5
ASMAKERIA DA.....	1	1	1	1	0	1	3	0	1	2	0	0	0	1	0	0	1	0	2
BESTE ERANTZUN BATZUK.....	2	2	2	2	2	2	1	3	1	1	1	0	3	0	0	0	3	4	2
EZ DU ERANTZUTEN.....	3	3	5	1	1	5	4	2	4	4	0	0	0	1	0	0	4	12	11
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* UAREN ETA BESTE ALDERDI BATZUEN JARRAITZAILEEN KOPURUAK OSO TXIKIAK DIRENEZ, EUREI DAGOKIEN DATUAK EZ DIRA KOMENTATU ETA KONTU HANDIZ IRAKURRI BEHAR DIRA.

EAEKO BIZTANLE GEHIENEK (%54) PAÍS VASCO KONTZEPTUA ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOA REKIN LOTZEN DUTE ETA %33K ARABA, BIZKAIA, GIPUZKOA, NAFARROA ETA IPARRALDEAREKIN. EUSKAL HERRIA KONTZEPTUARI DAGOKIONEAN BERRIZ, GEHIENEK (%52) EAEKO HIRU LURRALDEAK, NAFARROA ETA IPARRALDEAREKIN LOTZEN DUTE ETA %32K EAEKO HIRU LURRALDEEKIN.

Bizkaitarren %59k eta arabarren %56k País Vasco delakoa EAEko lurraldeekin identifikatzen dute. Gipuzkoarren artean antzerako tamaina duten bi talde daude: País Vasco Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarekin identifikatzen dutenena (%44) eta hiru lurralde horiek, Nafarroa eta Iparraldearekin identifikatzen dutenena (%43). Euskal Herriari dagokionean, joera antzerakoa da, lurralde guztietan kontzeptu zabalena (EAEko hiru lurraldeak, Nafarroa eta Iparraldeak osatutakoa) sarriago erabiltzen bada ere. Araban eta Bizkaian Gipuzkoan baino joera handiagoa dute kontzeptu murriztagoa adierazteko (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak osatua).

País Vascoren eta Euskal Herriaren lurralde identifikazioa asko aldatzen da norbera gehienbat euskal herritar ala gehienbat espainiar sentitzen denaren arabera. Beren burua gehienbat euskal herritartzat dutenen artean gehienek EAEko hiru lurraldeak, Nafarroa eta Iparraldearekin lotzen dituzte bai País Vasco kontzeptua (%54) eta baita Euskal Herria kontzeptua ere (%73). Euskal herritar bezain espainiar edo gehienbat espainiar sentitzen direnen artean aldiz, gehiago dira bai País Vasco delakoa, bai Euskal Herria EAEko hiru lurraldeekin lotzen dituztenak.

País Vasco zein Euskal Herria EAEko hiru lurraldeak, Nafarroa eta Iparraldearekin gehien lotzen dituztenak talde politiko hauen jarraitzaileak dira: Aralarrenak (%65 eta %93), ezker abertzaleko beste talde batzuenak (%78 eta %90) eta EArenak (%51 eta %75). EAJ-PNVren jarraitzaileen artean gehienek EAEko hiru lurraldeak, Nafarroa eta Iparraldea sartzen dituzte Euskal Herria kontzeptuan, baina País Vasco kontzeptuaren kasuan lurralde horiek sartzen dituztenek eta EAEko hiru lurraldeak bakarrik sartzen dituztenek antzerako portzentajeak osatzen dituzte. IU-EBren jarraitzaileen artean gehienek Euskal Herriaren kontzeptu zabalena dute (%64) eta País Vascoren kontzeptu murriztagoa (%51) eta PPren eta PSE-EEren jarraitzaileen artean, gehienek bai Euskal Herria eta baita País Vasco ere Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarekin lotzen dituzte.

Jarrera politikoak

Etorkizunerako nahiago den hizkuntza

(GUZTIZKOAK)

Zure ustez, etorkizunean zein hizkuntzatan hitz egin beharko litzateke Araban/ Bizkaian/ Gipuzkoan?*


	EAE 99 URRI	EAE 00 MAR	EAE 03 URRI
GAZTELANIAZ BAKARRIK.....	5	5	2
EUSKARAZ BAKARRIK.....	15	13	7
BIETAN.....	79	80	89
ED/EE.....	1	1	1
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100

* INKESTATUA BIZI DEN LURRALDEARI BURUZ EGIN ZAIO GALDERA.

EAEKO BIZTANLE GEHIENEK (%89) ETORKIZUNEAN, EUREN LURRALDEAN, EAEKO BI HIZKUNTZA OFIZIALETAN HITZ EGIN BEHARKO LITZATEKEELA USTE DUTE. %7K NAHIAGO LUKETE EUSKARAZKO ELEBAKARTASUNA ETA %2K GAZTELERAZKOA.

EAEko biztanleek etorkizunerako beren lurralderako hizkuntza aukera bezala elebitasunaren alde egiten dute gero eta gehiago. Honela 1999tik 2003ra aukera horren aldekoak %79 izatetik %89 izatera pasa dira. Euskal elebakartasunaren aldekoak zein erdal elebakartasunaren aldekoak gero eta gutxiago dira.

Zure ustez, etorkizunean zein hizkuntzatan hitz egin beharko litzateke Araban/Bizkaian/Gipuzkoan?



Jarrera politikoak

Etorkizunerako nahiago den hizkuntza

(KOLEKTIBOKA)

Zure ustez, etorkizunean zein hizkuntzatan hitz egin beharko litzateke Araban/ Bizkaian/ Gipuzkoan?*																			
	EAE ES 03 URR	LURRALDEA			EUSKARAREN JAKINTZA			BEGIKOTASUN POLITIKOA**											
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EZ	ZERBAIT	BAI	EAJ/ PNV	PP	PSE-EE	EZKER ABERTZALEKO BESTE	ARALAR	EA	IU	UA	BESTE BATZUK	BAT ERE EZ	DENAK	Ed/EE
GAZTELANIAZ BAKARRIK	2	5	2	2	5	1	1	1	6	5	0	0	1	0	0	0	2	4	3
EUSKARAZ BAKARRIK	7	3	6	11	2	4	16	8	1	2	30	16	15	5	0	2	4	4	3
BIETAN	89	91	91	86	91	93	83	91	89	91	69	83	84	95	100	98	93	89	89
Ed/EE	1	1	2	1	2	2	0	0	4	2	1	1	1	1	0	0	1	3	6
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* INKESTATUA BIZI DEN LURRALDEARI BURUZ EGIN ZAIO GALDERA.

** **UAREN** ETA **BESTE ALDERDI BATZUEN** JARRAITZAILEEN KOPURUAK OSO TXIKIAK DIRENEZ, EUREI DAGOZKIEN DATUAK EZ DIRA KOMENTATU ETA KONTU HANDIZ IRAKURRI BEHAR DIRA.

- Lurralde guztietan gehiago nabarmena osatzen dute etorkizunean EAEko bi hizkuntza ofizialetan hitz egin beharko litzatekeela diotenen. Gipuzkoarren %11k euskarazko elebarkatasuna nahiago lukete. Iritzi hori dutenak gutxiago dira Bizkaian (%6) eta Araban (%3).
- Elebitasuna da talde guztietan aldekotasan gehien jasotzen duen aukera, baina euskaraz dakitenen artean euskal elebarkartasunaren aldeko jarrera zabalduago dago pixka bat dakitenen eta batere ez dakitenen artean baino (%16, %4 eta %2 hurrenez hurren).
- Talde politiko guztien jarraitzaileek hobetsi dute elebitasuna etorkizunerako hizkuntza aukeratzat. EAren, Aralarren eta ezker abertzaleko beste talde batzuen jarraitzaileen artean beren lurraldean etorkizunean euskaraz bakarrik hitz egin beharko litzatekeela uste dutenak %15, %16 eta %30 dira hurrenez hurren.

Jarrera politikoak

Inguruko lurraldeekiko hurbiltasun sentimendua

(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA)

EAE inguratzen duten herrialde edo lurralde hauetatik hurbil sentitzen zara ala ez?											
BAIEZKOEN %	EAE ES 03 URR	LURRALDEA			JATORRIA				EUSKAL HERRITAR-ESPANIAR ARDATZA		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	ETORKINA	BERTAKOA, FAMILIA ETORKINA	BERTAKOA, FAMILIA MISTOA	BERTAKOA, FAMILIA BERTAKOA	BATEZ ERE EUSKAL HERRITARRA	E. HERRITARRA BEZAIN ESPAINIARRA	BATEZ ERE ESPAINIARRA
NAFARROA.....	66	74	62	71	58	57	68	74	73	59	63
IPARRALDEA.....	52	48	49	57	39	45	54	62	65	40	39
ERRIOXA.....	48	66	47	44	54	46	47	46	43	52	62
KANTABRIA.....	45	51	49	34	55	46	49	36	34	53	64
BURGOS.....	38	44	44	28	54	43	43	26	25	49	62

* PORTZENTAJEEN BATURA EZ DA 100, LURRALDE BAKOITZARI BURUZ GALDETU DELAKO.


☑ EAEREKIN MUGAKIDE DIREN LURRALDEETATIK, NAFARROA ETA IPARRALDEA DIRA EA EKO BIZTANLEEI HURBILTASUN SENTIMENDU HANDIENA ERAGITEN DIETENAK (%66 ETA %52 HURRENEZ HURREN). ONDOREN DATOZ ERRIOXA (%48), KANTABRIA (%45) ETA BURGOS (%38).

☑ Arabarren artean gainerakoen artean baino gehiago dira Nafarroarekiko (%74), Errioxarekiko (%66) eta Kantabriarekiko (%51) hurbil sentitzen direnak. Bizkaitarren artean batezbestekoa baino gehiago dira Kantabria (%49) eta Burgosekiko (%44) hurbil sentitzen direnak. Gipuzkoarren artean berriz Nafarroarekiko (%71) eta Iparraldearekiko (%57) hurbiltasun sentimendua dira nagusi.

☑ EAEn edo Nafarroan jaio eta gurasoak ere bertakoak dituztenen artean dago hedatuen Nafarroarekiko (%74) eta Iparraldearekiko (%62) hurbiltasun sentimendua. Inmigranteen artean aldiz, gainerakoen artean baino gehiago dira hurbiltasun sentimendu hori adierazten dutenak Kantabria (%55), Errioxa (%54) eta Burgosekiko (%54). Hala ere, inmigranteen taldean ere Nafarroa da hurbiltasun sentimendurik handiena pizten duen lurraldea.

☑ Beren burua gehienbat euskal herritartzat dutenek gainerakoek baino hurbiltasun sentimendu handiagoa dute Nafarroa eta Iparraldearekiko. Euskal herritar bezain espainiar sentitzen direnek eta gehienbat espainiar sentitzen direnek Kantabria, Errioxa eta Burgosekiko gainerakoek baino atxikimendu handiagoa azaltzen dute.

EAE inguratzen duten herrialde edo lurraldetatik hurbil sentitzea



Jarrera politikoak

Begikotasun politiko

(GUZTIZKOAK)


Zenbateko begikotasuna sortzen dizute ondoko talde politikoek 0tik 10erako eskala erabiliz, non 0ak inolako begikotasunik ez eta 10ak begikotasun handia esan nahi duten?

	EAE ES 1995	EAE ES 1996	EAE ES 1997	EAE ES 1998	EAE ES 2000	EAE ES 2001	EAE ES 2002	EAE ES 03 Api	EAE ES 03 Urr
EAJ/PNV	4.6	5.0	4.8	4.8	4.4	4.6	4.6	4.3	4.6
EA	3.0	3.5	3.7	4.0	3.7	3.9	3.8	3.7	3.9
IU/EB	2.8	3.2	3.2	3.5	2.9	3.4	3.2	3.7	3.4
ARALAR	-	-	-	-	-	-	-	3.1	2.9
PSE-EE	2.7	3.6	3.3	3.5	2.9	3.4	3.1	3.3	2.7
EZKER ABERTZALEKO BESTE BATZUK/BATASUNA/EH/HB/AUB	1.8	1.8	1.9	2.7	2.4	2.1	1.9	2.7	2.3
PP	1.8	2.4	2.7	2.6	2.4	2.5	2.3	1.9	1.8
UA	2.5	1.7	2.0	1.8	1.5	2.0	1.8	1.8	1.4

TALDE POLITIKO BAKAR BATEK ERE EZ DU NAHIKOA LORTZEN. EAJ-PNV-K BAKARRIK LORTU DU 4TIK GORAKO PUNTUAZIOA (4.6). ONDOREN DATOZ EA (3.9) ETA EB-IU (3.4). JARRAIAN ARALAR (2.9), PSE-EE (2.7) ETA EZKER ABERTZALEKO BESTE TALDE BATZUK (2.3) EGONGO LIRATEKE. PUNTUAZIORIK TXARRENAK PP-K (1.8) ETA UA-K (1.4) IZAN DITUZTE.

Aurtengo apiriletik hona EAJ-PNVk eta EAK euren puntuazioak hobetu dituzte, 2001ean lortutakoa bera erdietsi dutelarik. Gainerako talde guztiek duela 6 hilabete baino emaitza kaxkarragoak izan dituzte, PSE-EEren galera delarik aipagarriena, 6 ehuneneko jaitsita, 4. lekutik 5.era pasa baita, Aralarren atzetik. PPK, PSE-EEk eta UAK 1995etik gaurdaino izandako puntuaziorik txarrena jaso dute oraingoan.

Begikotasun maila (0tik 10erako eskalan)



Jarrera politikoak

Begikotasun politikoak

(KOLEKTIBOKA)

Zenbateko begikotasuna sortzen dizute ondoko partidu politikoek 0tik 10erako eskala erabiliz non 0ak inolako begikotasunik ez eta 10ak begikotasun handia esan nahi duten?

	EAE ES 03 URR	LURRALDEA			ADIN TALDEAK				BEGIKOTASUN POLITIKOAK*											
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	18-29	30-45	46-64	>=65	EAJ/ PNV	PP	PSE- EE	EZKER ABERTZALEKO BESTE	ARALAR	EA	IU	UA	BESTE BATZUK	BAT ERE EZ	DENAK	Ed/Ee
EAJ/ PNV.....	4.6	4.6	4.5	4.6	4.4	4.5	4.4	5.2	7.5	2.2	3.3	4.6	5.1	5.7	4.3	4.1	3.0	2.3	3.0	3.5
EA.....	3.9	3.9	3.7	4.3	4.0	4.0	3.7	4.1	6.0	1.6	2.8	4.6	5.3	7.3	4.0	3.1	3.0	1.9	2.4	3.1
IU/EB.....	3.4	3.4	3.2	3.6	3.6	3.6	3.1	2.8	4.0	1.7	3.7	3.4	5.0	4.1	6.5	3.0	1.9	1.7	2.3	3.2
ARALAR.....	2.9	2.9	2.5	3.5	3.2	3.2	2.6	2.2	3.7	1.1	1.9	4.3	7.2	5.1	3.6	0.6	2.6	1.3	1.7	2.5
PSE-EE.....	2.7	3.6	2.6	2.6	2.6	2.7	2.9	2.7	2.2	3.4	6.5	0.6	2.1	2.2	2.9	1.7	1.9	1.6	2.5	3.2
EZKER ABERTZALEKO BESTE BATZUK.....	2.3	2.2	2.0	3.0	2.7	2.6	2.1	1.6	2.4	0.6	1.2	7.6	4.8	3.3	2.4	2.7	2.5	1.0	1.7	1.7
PP.....	1.8	2.4	1.8	1.5	1.6	1.6	2.0	2.0	0.9	7.1	2.2	0.2	0.7	0.9	1.0	2.5	1.8	1.1	2.1	2.5
UA.....	1.4	1.8	1.2	1.4	1.6	1.3	1.5	1.2	1.3	3.2	2.0	0.7	0.9	0.9	1.1	3.1	1.6	0.9	1.9	1.8

* UAREN ETA BESTE ALDERDI BATZUEN JARRAITZAILEEN KOPURUAK OSO TXIKIAK DIRENEZ, EUREI DAGOZKIEN DATUAK EZ DIRA KOMENTATU ETA KONTU HANDIZ IRAKURRI BEHAR DIRA.

- Arabarrek bizkaitarrek eta gipuzkoarrek baino nota hobea ematen diete PPri (2.4) eta PSE-EEri (3.6). Bizkaitarrek gainerakoek baino puntuazio baxuagoa ematen diete alderdi guztiei eta Gipuzkoarren artean EAri (4.3), Aralarri (3.5) eta ezker abertzaleko beste talde batzuei (3.0) emandako puntuazio altua da deigarriena.
- EAJ-PNVk, bere puntuaziorik onenak 64 urtetik gorakoen artean jasotzen ditu eta PPK 45etik gorakoen artean. IU-EB, Aralar eta ezker abertzaleko beste taldeei berriz 45 urtetik beherakoek ematen diete puntuaziorik onena. Gainerakoek (EA, PSE-EE eta UA) antzerako puntuazioak jasotzen dituzte adin talde desberdinetan.
- Beren jarraitzaileengandik balorazio onena jasotzen dutenak ezker abertzaleko taldeak (7.6) eta EAJ-PNV (7.5) dira. Ondoren EA (7.3), Aralar (7.2) eta PP (7.1). Puntuazio baxuagoa lortu dute PSE-EE eta IU-EBk (6.5).
- Talde politiko bakoitzaren jarraitzaileek joera dute nahikoa nota beren taldeari bakarrik emateko, salbu eta EAJkoak, EAri ere nahikoa ematen diotelarik, eta alderantziz ere bai, EAkoek EAJri. Gainera, Aralarren jarraitzaileek nahikoa ematen diete Eusko Jaurlaritzan osatzen duten hiru alderdiei (EAJ, EA eta IU-EB).

Jarrera politikoak

Buruzagi politikoaren balorazioa

(GUZTIZKOAK)

Zenbat puntu emango zenioke politiko bakoitzari, 0tik 10erako eskalan?

	EAE ES 1995	EAE ES 1996	EAE ES 1997	EAE ES 1998	EAE ES 1999	EAE ES 2000	EAE ES 2001	EAE ES 2002	EAE ES FEB. 03	EAE ES ABR. 03	EAE ES OCT. 03	
JUAN JOSÉ IBARRETXE LEHENDAKARIA	-	-	-	4.8	5.6	5.2	5.4	5.3	5.2	5.1	5.1 JUAN JOSÉ IBARRETXE LEHENDAKARIA
BEGOÑA ERRAZTI.....	-	-	-	-	-	4.0	4.1	4.0	3.9	3.8	3.6 BEGOÑA ERRAZTI
JAVIER MADRAZO	3.2	3.6	3.1	3.3	3.6	3.3	3.5	3.4	3.9	3.6	3.5 JAVIER MADRAZO
XABIER ARZALLUZ	-	4.6	3.9	3.7	3.9	3.7	3.5	3.3	3.1	3.1	3.4 XABIER ARZALLUZ
PATXI ZABALETA	-	-	-	-	-	-	-	3.3	3.5	3.4	3.3 PATXI ZABALETA
GASPAR LLAMAZARES.....	-	-	-	-	-	-	3.2	3.0	3.5	3.3	3.0 GASPAR LLAMAZARES
JOSÉ LUIS RODRÍGUEZ ZAPATERO	-	-	-	-	-	2.9	3.6	3.3	3.4	3.2	2.7 JOSÉ LUIS RODRÍGUEZ ZAPATERO
PATXI LÓPEZ.....	-	-	-	-	-	-	-	3.0	3.0	2.8	2.6 PATXI LÓPEZ
ARNALDO OTEGI	-	-	-	3.7	3.8	3.0	2.3	2.1	2.2	2.4	2.3 ARNALDO OTEGI
JOSÉ MARÍA AZNAR.....	2.2	3.1	2.9	2.9	2.7	2.4	2.4	2.2	2.0	1.8	1.7 JOSÉ MARÍA AZNAR
MARIANO RAJOY	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1.7 MARIANO RAJOY
CARLOS ITURGAITZ.....	-	-	2.6	2.9	2.6	2.1	2.2	1.9	1.8	1.7	1.6 CARLOS ITURGAITZ
ENRIQUETA BENITO	-	-	-	-	-	-	-	1.5	1.7	1.4	1.2 ENRIQUETA BENITO

AURREKO NEURKETETAN BEZALA, JUAN JOSE IBARRETXE LEHENDAKARIA DA NAHIKOA JASOTZEN DUEN BAKARRA (5.1). 3 ETA 4 PUNTU ARTEAN JASO DITUZTE BEGOÑA ERRAZTIK (3.6), JAVIER MADRAZOK (3.5), XABIER ARZALLUZEK (3.4), PATXI ZABALETAK (3.3) ETA GASPAR LLAMAZARESEK (3.0). 2 TA 3 PUNTU ARTEAN JASO DITUZTENAK JOSE LUIS RODRIGUEZ ZAPATERO (2.7), PATXI LOPEZ (2.6) ETA ARNALDO OTEGI (2.3) DIRA. PUNTUAZIORIK BAXUENAK JOSE MARIA AZNARREK (1.7), MARIANO RAJOYK (1.7), CARLOS ITURGAITZEK (1.6) ETA ENRIQUETA BENITOK (1.2) JASO DITUZTE.

Duela sei hilabete baino balorazio hobea jaso duen buruzagi bakarra Xabier Arzalluz da, 3.1etik 3.4ra pasa delarik. Ibarretxe lehendakariak duela 6 hilabeteko puntuazio bera jaso du, eta gainerako guztiak jaitsi egin dira. Galera nabarmenena Jose Luis Rodriguez Zapaterorena da, 5 ehuneneko gutxiago jaso dituelarik. EAeko biztanleen balorazioari dagokionean buruzagi guztiak daude orain arteko beren momenturik okerrean, Ibarretxe lehendakaria, Xabier Arzalluz, Javier Madrazo eta Arnaldo Otegi salbu.

Jarrera politikoak

Buruzagi politikoaren balorazioa

(KOLEKTIBOKA)

Zenbat puntu emango zenioke politiko bakoitzari, 0tik 10erako eskalan?

	EAE ES 03 URR	LURRALDEA			BEGIKOTASUN POLITIKOA*											
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAJ/ PNV	PP	PSE-EE	Ezk. ABERTZAL- EKO BESTE	ARALAR	EA	IU	UA	BESTE BATZUK	BAT ERE EZ	DENAK	Ed/Ee
JUAN JOSÉ IBARRETXE LEHENDAKARIA	5.1	5.0	5.2	5.2	7.6	3.1	3.7	5.0	5.5	7.0	5.3	6.8	3.8	3.4	4.6	4.6
BEGOÑA ERRAZTI.....	3.6	3.3	3.5	3.8	5.1	1.7	2.1	4.6	4.8	6.5	3.5	4.6	2.5	1.7	2.3	3.0
JAVIER MADRAZO.....	3.5	3.3	3.5	3.5	4.4	2.1	3.2	3.7	4.2	4.7	5.4	5.8	2.4	2.0	2.5	3.3
XABIER ARZALLUZ.....	3.4	3.1	3.4	3.6	5.7	1.4	1.7	4.6	4.3	4.6	3.0	4.1	3.1	1.8	2.8	2.6
PATXI ZABALETA.....	3.3	3.1	3.0	3.8	3.7	2.2	2.4	4.5	6.1	5.2	3.9	0.0	2.7	1.8	2.5	3.4
GASPAR LLAMAZARES	3.0	3.1	3.0	2.9	3.2	2.4	3.8	2.4	3.6	3.5	5.0	3.8	1.5	1.8	2.5	3.2
JOSE LUIS RODRIGUEZ ZAPATERO	2.7	3.3	2.8	2.3	2.4	3.1	5.5	0.8	1.8	2.1	3.0	1.7	1.8	2.1	2.7	3.5
PATXI LÓPEZ.....	2.6	3.2	2.6	2.2	2.2	3.5	5.0	0.9	1.8	2.2	2.7	0.7	1.7	1.8	2.3	3.6
ARNALDO OTEGI.....	2.3	2.0	2.1	2.8	2.5	0.8	0.9	7.1	4.2	3.5	2.3	2.9	3.3	1.2	1.6	2.1
JOSÉ MARIA AZNAR.....	1.7	2.3	1.7	1.4	0.9	6.1	1.9	0.1	0.4	0.8	0.9	3.0	1.5	1.5	1.9	3.0
MARIANO RAJOY.....	1.7	2.4	1.8	1.4	1.0	5.1	2.5	0.3	0.8	0.9	1.2	2.2	1.4	1.5	2.3	2.9
CARLOS ITURGAITZ.....	1.6	2.1	1.6	1.2	1.0	4.8	2.2	0.3	0.6	0.7	1.0	1.7	1.2	1.3	1.8	2.7
ENRIQUETA BENITO.....	1.2	1.6	1.2	1.0	1.0	2.8	1.9	0.6	0.5	1.0	1.7	3.0	1.1	0.8	1.9	1.9

* UAREN ETA BESTE ALDERDI BATZUEN JARRAITZAILEEN KOPURUAK OSO TXIKIAK DIRENEZ, EUREI DAGOKIEN DATUAK EZ DIRA KOMENTATU ETA KONTU HANDIZ IRAKURRI BEHAR DIRA.

- Juan Jose Ibarretxe lehendakariak antzerako puntuazioa jaso du EAEko hiru lurraldeetan, baita Javier Madrazok eta Gaspar Llamazaresek ere. Araban lortzen dute baloraziorik altuena PSE-EEko buruzagiek (Jose Luis Rodriguez Zapaterok 3.3 eta Patxi Lopezek 3.2), PPkoek (Jose Maria Aznarrek 2.3, Mariano Rajoyk 2.4 eta Carlos Iturgaitzek 2.1) eta UAKoak (Enriqueta Benitok 1.6). Gipuzkoarrak dira aldiz, Begoña Erraztiri (3.8), Patxi Zabaletari (3.8), Xabier Arzalluzi (3.6) eta Arnaldo Otegi (2.8) puntuaziorik onenak eman dizkietenak.
- Beren alderdietako jarraitzaileek emandako puntuazioen arabera, baloraziorik onenak Juan Jose Ibarretxe lehendakariarena (7.6) eta Arnaldo Otegiarena (7.1) dira. Ondoren Begoña Errazti (6.5), Patxi Zabaleta (6.1) eta Jose Maria Aznar (6.1) egongo lirateke. 5 eta 6 puntu artean ematen dizkiete beren alderdietako jarraitzaileek Xabier Arzalluzi (5.7), Jose Luis Rodriguez Zapaterori (5.5), Javier Madrazori (5.4), Mariano Rajoyri (5.1), Patxi Lopez (5.0) eta Gaspar Llamazaresi (5.0). Euren alderdietako jarraitzaileen artean ere ez dute nahikoa lortzen Carlos Iturgaitzek (4.8) eta Enriqueta Benitok (3.0).
- EAJren jarraitzaileek, beren alderdiko buruzagiei ez ezik, Begoña Erraztiri ere ematen diote nahikoa nota. Bestalde, EA, Aralar, IU-EB eta Ezker abertzaleko beste talde batzuen jarraitzaileek Ibarretxe lehendakariari nahikoa eman diote eta EAKoek Patxi Zabaletari ere bai.

B - Egoeraren balorazioa

- Euskal Herriko egoeraren balorazioa
- Euskal Herriko eta Espainiako estatuko egoeraren balorazioa
- Euskal Herriko eta Espainiako estatuko egoera politikoaren balorazioa
- Euskal Herriko eta Espainiako estatuko egoera ekonomikoaren balorazioa
- Euskal Herriko eta Espainiako estatuko egoera sozialaren balorazioa
- Euskal Herriko arazo nagusiak
- Pertsonalki gehien eragiten duten arazoak
- Demokraziaren funtzionamendua Euskal Herrian eta Espainiako estatuan
- Administrazioarekiko poztasun maila
- EAEn bizitzea

Egoeraren balorazioa

Euskal Herriko egoeraren balorazioa

(GUZTIZKOAK)

Nolakoa da zuretzat Euskal Herriko egoera politikoa: Oso ona, ona, txarra edo oso txarra? Eta egoera ekonomikoa? Eta egoera soziala?

	EAE ES 02 URR	EAE ES 03 OTS	EAE ES 03 URR
EGOERA POLITKOA			
OSO ONA	1	1	1
ONA	13	17	21
TXARRA	55	58	51
OSO TXARRA	25	18	16
Ed/EE	7	6	10
EGOERA POLITIKOAREN BALANTZEA *	-66	-58	-45
EGOERA EKONOMIKOA			
OSO ONA	3	3	4
ONA	57	63	59
TXARRA	31	26	29
OSO TXARRA	5	2	4
Ed/EE	5	6	5
EGOERA EKONOMIKOAREN BALANTZEA *	24	38	30
EGOERA SOZIALA			
OSO ONA	2	3	2
ONA	43	52	50
TXARRA	41	35	35
OSO TXARRA	9	5	6
Ed/EE	6	8	7
EGOERA SOZIALAREN BALANTZEA *	-5	15	11
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100	100

* EGOERA BALANTZEA: (OSO ONA+ONA) – (TXARRA+OSO TXARRA)

EAEKO BIZTANLEEK EGOERA POLITIKOARI BURUZ DUTEN IRITZIAK HOBERA EGIN DU AZKEN HILABETEOTAN, ORAINDIK ERE GEHIENEK (%67) EGOERA TXARRA EDO OSO TXARRA DELA ESATEN DUTEN ARREN. DUELA URTEBETE BALORAZIO HORI BERA EGITEN ZUTEN %80K.

EGOERA EKONOMIKOARI DAGOKIONEAN, %63K ONA EDO OSO ONA DELA DIOTE. BALORAZIO HAU HOBETU EGIN ZEN URTE HASIERAN, BAINA JAITSI EGIN DA BERRIRO, HALA ERE IAZ BAINO HOBETO GELDITU DELARIK.

EAEKO BIZTANLEEN ERDIAK BAINO GEHIXEAGOK (%52) USTE DUTE EGOERA SOZIALA ONA EDO OSO ONA DELA. BALORAZIO HAU DUELA URTEBETEKOA BAINO HOBEA DA (ORDUAN %45K ZIOEN HORI), BAINA EZ AURTENGO OTSAILEKOA BEZAIN ONA.

Egoeraren balorazioa

Euskal Herriko eta Espainiako estatuko egoeraren balorazioa

(GUZTIZKOAK)

Nolakoa da zuretzat Euskal Herriko egoera politikoa: Oso ona, ona, txarra edo oso txarra? Eta Espainiako Estatukoa? Eta Euskal Herriko egoera ekonomikoa? Eta Estatukoa? Eta Euskal Herriko egoera soziala? Eta Estatukoa?

	EUSKAL HERRIKO EGOERA ES 03 URR	ESPAINIAKO ESTATUKO EGOERA ES 03 URR
EGOERA POLITIKOA		
Oso ONA	1	1
ONA	21	17
TXARRA	51	49
Oso TXARRA	16	21
Ed/Ee	10	12
EGOERA POLITKOAREN BALANTZEA *	-45	-52
EGOERA EKONOMIKOA		
Oso ONA	4	1
ONA	59	38
TXARRA	29	41
Oso TXARRA	4	6
Ed/Ee	5	14
EGOERA EKONOMIKOAREN BALANTZEA *	30	-8
EGOERA SOZIALA		
Oso ONA	2	0
ONA	50	38
TXARRA	35	37
Oso TXARRA	6	7
Ed/Ee	7	17
EGOERA SOZIALAREN BALANTZEA *	11	-6
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100

EAEKO HERRITARREK BAI EUSKAL HERRIKO ETA BAI ESPAINIAKO ESTATUKO EGOERA POLITIKOA TXARRAK DIRELA USTE DUTE, BAINA ESTATUKO EGOERA EAEKOA BAINO PIXKA BAT OKERRAGO IKUSTEN DUTE.

EGOERA EKONOMIKOARI BURUZKO IRITZIA OSO DESBERDINA DA EUSKAL HERRIARI EDO ESTATUARI BURUZ GALDETZEAREN ARABERA. IA BI HERENEK EUSKAL HERRIKO EGOERA ONA EDO OSO ONA DELA DIOTE ETA ESTATUKO EGOERARI BURUZ ALDIZ, GEHIAGO DIRA TXARRA EDO OSO TXARRA DELA DIOTENAK, ONA EDO OSO ONA DELA DIOTENAK BAINO. ESTATUKO EGOERARI BURUZKO IRITZIRIK EMAN EZ DUTENAK ERE GEHIAGO DIRA.

EGOERA SOZIALARI DAGOKIONEAN, EGOERA EKONOMIKOARI BURUZ IKUSI DUGUNAREN ANTZERA GERTATZEN DA, BAINA MAILA TXIKIAGOAN; EUSKAL HERRIAREN KASUAN ERDIA BAINO GEHIXEAGO DIRA BALORAZIO POSITIBOA EGITEN DUTENAK ETA %38RA BESTERIK EZ DIRA IRISTEN ESTATUAREN KASUAN. ORAINGOAN ERE, ASKO DIRA ESTATUKO EGOERARI BURUZKO IRITZIRIK EMAN EZ DUTENAK (%17).

Egoeraren balorazioa

Euskal Herriko eta Espainiako estatuko egoera politikoaren balorazioa

(KOLEKTIBOKA)

Nolakoa da zuretzat Euskal Herriko egoera politikoa?

	EAE ES 03 URR	LURRALDEA			BEGIKOTASUN POLITIKOA*											
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAJ/PNV	PP	PSE-EE	EZK. ABERTZAL- EKO BESTE	ARALAR	EA	IU	UA	BESTE BATZUK	BAT ERE EZ	DENAK	Ed/EE
Oso ONA	1	1	1	1	2	0	1	1	0	0	0	0	0	1	2	1
ONA	21	24	24	16	32	13	19	15	14	24	15	0	2	20	29	16
TXARRA	51	49	49	56	49	55	57	50	66	45	63	66	50	47	46	54
Oso TXARRA	16	14	16	17	10	25	16	31	19	22	17	34	35	15	6	14
Ed/EE	10	12	10	10	8	6	8	3	2	9	5	0	13	18	18	16

Eta Espainiako estatuko egoera politikoa?

Oso ONA	1	1	0	1	0	3	0	0	0	0	1	0	0	1	2	0
ONA	17	27	18	12	14	28	24	6	6	6	7	34	1	21	17	22
TXARRA	49	43	49	50	48	49	53	43	54	46	57	66	55	46	56	45
Oso TXARRA	21	18	21	23	27	10	12	43	37	37	31	0	30	14	5	12
Ed/EE	12	12	11	15	10	9	11	8	3	11	4	0	14	19	20	21
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* UAREN ETA BESTE ALDERDI BATZUEN JARRAITZAILEEN KOPURUAK OSO TXIKIAK DIRENEZ, EUREI DAGOZKIEN DATUAK EZ DIRA KOMENTATU ETA KONTU HANDIZ IRAKURRI BEHAR DIRA.

- Hiru lurraldeetan, gehiengo osatzen dute bai Euskal Herriko egoera politikoa bai Estatuko txarrak direla diotenek. Gipuzkoarrak dira egoera okerren ikusten dutenak, bai Euskal Herriaren kasuan, baita Estatuarenean ere. Egoera politikoa txarra edo oso txarra dela dioten gipuzkoarrak %73 dira bi kasuetan. Arabarrak dira Euskal Herriko egoera politikoa Espainiako estatuko bano okerrago ikusten duten bakarrak.
- Aralarren jarraitzaileek, ezker abertzaleko beste taldeetakoek, PPrenak eta IU-EBrenak ikusten dute okerren Euskal Herriko egoera politikoa. Talde horietan %80 baino gehiago dira egoera txarra edo oso txarra dela diotenak. Iritzi negatibo gutxien azaltzen dutenak EAJ-PNVkoak dira, horien %34k egoera ona edo oso ona dela diotelarik.
- Estatuko egoera politikoari buruzko iritzirik okerrenak dituztenak Aralarren jarraitzaileak, IU-EBrenak, ezker abertzaleko beste talde batzuenak eta EArenak dira. Talde horietan %80 baino gehiago dira egoera txartzat edo oso txartzat dutenak. Iritzi hori adierazi dutenak %75 dira EAJ-PNVren jarraitzaileen artean eta %65 PSE-EErenen artean. Iritzi negatibo gutxien PPko jarraitzaileen artean dago, baina talde horretan ere, egoera txartzat dutenak ontzat dutenak baino gehiago dira.
- PP eta PSE-EEko jarraitzaileek okerrago ikusten dute Euskal Herriko egoera politikoa Estatuko baino. Gainerako taldeetan aurkako iritzia da nagusi.

Egoeraren balorazioa

Euskal Herriko eta Espainiako estatuko egoera ekonomikoaren balorazioa

(KOLEKTIBOKA)

Nolakoa da zuretzat Euskal Herriko egoera ekonomikoa?

	EAE ES 03 URR	LURRALDEA			HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA			BEGIKOTASUN POLITIKOA*											
		ARABA	BIZKAIKA	GIPUZKOA	BAXUA	ERDIKOA	ALTUA	EAJ/ PNV	PP	PSE- EE	EZKER ABERTZAL- EKO BESTE	ARALAR	EA	IU	UA	BESTE BATZUK	BAT ERE EZ	DENAK	Ed/EE
Oso ONA.....	4	5	3	4	2	5	9	5	6	3	2	1	5	5	0	0	2	6	5
ONA.....	59	64	55	63	51	62	64	67	56	57	58	74	63	54	68	28	52	59	54
TXARRA.....	29	23	33	26	37	27	22	22	28	34	32	23	24	37	7	49	34	25	27
Oso TXARRA.....	4	2	4	3	7	2	1	3	4	5	6	1	1	2	0	18	4	5	1
Ed/EE.....	5	6	5	5	4	5	5	3	5	2	2	1	7	3	25	6	7	6	13

Eta Espainiako estatuko egoera ekonomikoa?

Oso ONA.....	1	1	0	1	0	1	1	0	2	1	0	0	0	1	0	0	0	2	1
ONA.....	38	45	36	40	29	41	55	36	59	43	27	36	30	31	7	6	39	42	38
TXARRA.....	41	35	45	36	45	40	29	42	26	41	44	43	44	51	34	42	41	49	35
Oso TXARRA.....	6	4	7	4	10	4	4	6	4	7	12	4	7	4	0	20	5	2	5
Ed/EE.....	14	15	11	19	15	14	10	16	9	9	17	17	18	13	59	31	15	5	20
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* UAREN ETA BESTE ALDERDI BATZUEN JARRAITZAILEEN KOPURUAK OSO TXIKIAK DIRENEZ, EUREI DAGOZKIEN DATUAK EZ DIRA KOMENTATU ETA KONTU HANDIZ IRAKURRI BEHAR DIRA.

- Arabarren %69k eta gipuzkoarren %67k Euskal Herriko egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela diote. Bizkaitarren artean, iritzi hori dutenen portzentajea baxuagoa da, %58k egiten dute balorazio positiboa. Hiru lurraldeetako biztanleak dira Estatuko egoerarekin Euskal Herrikoarekin baino kritikoago, baina Estatuaren kasuan ere arabarrek eta gipuzkoarrek, bizkaitarrek baino pixka bat hobeto ikusten dute egoera. Azken hauen artean gehiago dira Estatuko egoera ekonomikoa txarra edo oso txarra dela diotenak (%52), ona edo oso ona dela diotenak baino (%36).
- Klase sozialak ere harremana du egoera ekonomikoaren pertzepzioarekin. Klase baxukoaren artean erdia baino gehixeago dira (%52) egoeraren balorazio positiboa egiten dutenak, iritzi hori klase altukoaren %73k duten bitartean. Estatuko egoera ekonomikoaren pertzepzioa Euskal Herrikoarena baino okerragoa da klase sozial guztietan, baina kasu honetan ere joera berbera du: norbera zenbat eta maila sozial altuagoan kokatu, orduan eta hobe da egoera ekonomikoaren pertzepzioa. Beren burua klase altukotzat dutenen artean, egoera ona edo oso ona dela diotenak gehiago dira (%56) txarra edo oso txarra dela diotenak baino (%33).
- Talde politiko guztien jarraitzaileen artean gehiengo osatzen dute Euskal Herriko ekonomiaren balorazio positiboa egiten dutenak. Egoera ekonomikoa hobekien ikusten dutenak Aralarren jarraitzaileak eta EAJ-PNVrenak dira; horien %75ek eta %72k, hurrenez hurren, egoera ona edo oso ona dela uste dute. Beste muturrean, IU-EBkoen %39k, PSE-EEkoen beste %39k eta ezker abertzaleko beste talde batzuen %38k egoera txarra edo oso txarra dela diote. Estatuko egoera ekonomikoari buruz berriz, PPren jarraitzaileak dira balorazio positiboena egiten dutenak; horien %61ek ona edo oso ona dela diote. Beste talde guztietan gehiago dira Estatuko egoera gaizki ikusten dutenak ondo ikusten dutenak baino. Kritikoak ezker abertzaleko taldeen jarraitzaileak eta IU-EBkoak dira; horien arteko %56k eta %55ek hurrenez hurren, egoera txarra edo oso txarra dela diote.

Egoeraren balorazioa

Euskal Herriko eta Espainiako estatuko egoera sozialaren balorazioa

(KOLEKTIBOKA)

Nolako da zuretzat Euskal Herriko egoera soziala?

	EAE ES 03 UR	LURRALDEA			EUSKAL HERRITAR-ESPANIAR ARDATZA			BEGIKOTASUN POLITIKOA*											
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	BATEZ ERE EUSKAL HERRITARRA	E. HERRITARRA BEZAIN ESPAINIARRA	BATEZ ERE ESPAINIARRA	EAJ/ PNV	PP	PSE- EE	EZKER ABERTZALEKO BESTE	ARALAR	EA	IU	UA	BESTE BATZUK	BAT ERE EZ	DENAK	Ed/Ee
OSO ONA	2	4	2	3	3	2	1	3	1	3	2	1	7	1	0	9	2	4	2
ONA	50	49	49	51	55	46	41	61	38	43	47	51	56	43	68	19	48	53	44
TXARRA	35	34	36	33	32	37	38	29	34	39	42	39	28	40	32	50	36	27	35
OSO TXARRA	6	6	8	3	3	8	11	3	20	8	4	3	1	6	0	9	5	11	7
Ed/Ee	7	7	5	11	6	7	9	4	7	6	5	6	8	10	0	13	9	6	12

Eta Espainiako estatuko egoera soziala?

OSO ONA	0	0	0	1	1	0	1	1	1	1	1	0	0	0	0	1	0	0	0
ONA	38	46	38	36	31	44	50	37	48	45	22	22	27	30	34	15	43	45	40
TXARRA	37	34	40	35	40	36	30	39	34	36	44	48	44	43	32	44	34	33	30
OSO TXARRA	7	5	9	5	9	5	7	8	7	6	14	9	7	8	0	18	5	8	6
Ed/Ee	17	15	13	23	20	14	12	16	10	13	19	21	22	18	34	23	17	13	24
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* UAREN ETA BESTE ALDERDI BATZUEN JARRAITZAILEEN KOPURUAK OSO TXIKIAK DIRENEZ, EUREI DAGOZKIEN DATUAK EZ DIRA KOMENTATU ETA KONTU HANDIZ IRAKURRI BEHAR DIRA.

- EAeko hiru lurraldeetako biztanleen artean ez dago desberdintasun handirik Euskal Herriko egoera sozialari buruzko iritziei dagokienean. Estatuko egoera sozialari dagokienean Arabako herritarrak dira iritzirik onena dutenak, %46k egoera ona edo oso ona dela uste dute. Iritzi hori bera bizkaitarren %38k eta gipuzkoarren %37k adierazi dute. Adierazgarria da gai honen inguruko iritzirik eman ez duten gipuzkoarren portzentajea: %23.
- Beren burua gehienbat euskal herritartzat dutenek ikusten dute hobekien Euskal Herriko egoera soziala eta okerren Estatukoa. Honela, horien %58k Euskal Herriko egoera ona edo oso ona dela diote eta %49k Estatukoa txarra edo oso txarra dela. Beren burua gehienbat espainiartzat dutenen artean berriz gehiago dira Euskal Herriko egoera soziala txarra edo oso txarra dela diotenak (%49) eta gehiago, Estatukoa ona edo oso ona dela diotenak (%51). Beren burua euskal herritar bezain espainiartzat dutenek bi egoerei buruzko antzerako iritzia adierazi dute.
- EAJ-PNV eta EAren jarraitzaileak dira Euskal Herriko egoera sozialaren pertzepzio positiboena dutenak (%64 eta %63 hurrenez hurren). Okerren ikusten dutenak PPre jarraitzaileak dira (%39k balorazio positiboa eta %54k negatiboa).
- PPre jarraitzaileen %49k eta PSE-EEren %46k Espainiako estatuko egoera soziala ona edo oso ona dela diote. EAJ, IU-EB, EA, Aralar eta ezker abertzaleko beste talde batzuen jarraitzaileen artean berriz, iritzi hori dutenak gutxiengo dira (%38, %30, %27, %22 eta %23, hurrenez hurren). PPre eta PSE-EEren jarraitzaileen artean bakarrik gertatzen da Estatuko egoera soziala positibotzat dutenak Euskal Herrikoa positibotzat dutenak adina edo gehiago izatea.

Egoeraren balorazioa

Euskal Herriko arazo nagusiak

(GUZTIZKOAK)

Zure iritziz, zeintzuk dira Euskal Herriak dituen bi arazorik garrantzitsuenak? *

	EAE ES 03 OTs	EAE ES 03 URR
TERRORISMOA ETA INDARKERIA	66	56
LANGABEZIA.....	49	41
EUSKAL HERRIKO GATAZKA ETA EGOERA POLITIKOA	25	31
ETXEBIZITZA	15	19
ARAZO EKONOMIKOAK ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK	8	8
HIZKUNTZA EGOERAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK	**	3
INMIGRAZIOA	2	1
DELINKUENTZIA ETA SEGURTASUN FALTA.....	2	1
DROGAK	1	1
INGURUMENA	2	0
BESTE BATZUK	2	1

* INKESTATUEK ESPONTANEOKI EMANDAKO ERANTZUNAK ONDOREN KODIFIKATU DIRA.


PORTZENTAJEEN BATURA EZ DA 100, ARAZO BAKOITZA LEHENENGO EDO BIGARREN LEKUAN AIPATU DUTEN INKESTATU KOPURUA ADIERAZTEN DUTELAKO

** HIZKUNTZA EGOERAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK, AURREKO NEURKETAN "BESTE BATZUK" KATEGORIAN SARTU ZIREN, EZ ZUTELAKO TALDE AIPAGARRIRIK OSATZEN.

EUSKAL HERRIKO ARAZORIK GARRANTZITSUENAK, EAEKO BIZTANLEEN IRITZIZ, ONDOKOAK DIRA: INDARKERIA ETA TERRORISMOA (%56), LANGABEZIA (%41) ETA EUSKAL HERRIKO GATAZKA ETA EGOERA POLITIKOA (%31); AZKEN HORREN BARRUAN HAINBAT GAI SARTZEN DIRA, HALA NOLA ASKATASUN FALTA, EUSKAL HERRIA ETA ESPAINIAKO ESTATUAREN ARTEKO HARREMANAK, ELKARBIZITZA, NAZIONALISMOA, PRESOKA ETA ABAR. ETXEBIZITZA DA GEHIEN AIPATUTAKO LAUGARREN ARAZOA (%19), ETA ONDOREN DATOZ ARAZO EKONOMIKOAK ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK (%8), HORREN BARRUAN SARTZEN DIRELARIK LAN EZEGONKORTASUNA, PENSIO BAXUAK, BIZITZA GARESTITASUNA, POBREZIA, DISKRIMINAZIOAK ETA ABAR. BESTE ARAZO BATZUK ERE AIPATU DIRA, HALA NOLA HIZKUNTZA EGOERAREKIN LOTUTAKOAK (%3), DELINKUENTZIA ETA SEGURTASUN GABEZIA (%1) ETA BESTE BATZUK (%1).

Indarkeria eta terrorismoaren garrantziaren pertzepzioa txikitu egin da azken zortzi hilabeteotan (%66tik %56ra) eta baita langabeziarena ere (%49tik %41era). Aldiz handitu egin da bi arazo larrietako bat gatazka eta egoera politikoa dela uste dutenen portzentajea (%25etik %31ra) eta baita etxebizitza aipatu dutenena ere (%15etik %19a)

Zure iritziz, zeintzuk dira Euskal Herriak dituen bi arazorik garrantzitsuenak?



Egoeraren balorazioa

Euskal Herriko arazo nagusiak

(KOLEKTIBOKA)

Zure iritziz, zeintzuk dira Euskal Herriak dituen bi arazorik garrantzitsuenak? *

	EAE ES 03 URR	LURRALDEA			EUSKAL HERRITAR-ESPANIAR ARDATZA			EZKER-ESKUIN ARDATZA			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	BATEZ ERE EUSKAL HERRITARRA	E. HERRITARRA BEZAIN ESPAINIARRA	BATEZ ERE ESPAINIARRA	EZKERRA	ZENTROA	ESKUINA	Ed/Ee
TERRORISMOA ETA INDARKERIA	56	64	61	44	43	69	72	50	65	70	56
LANGABEZIA	41	33	47	34	40	46	33	44	41	37	37
EUSKAL HERRIKO GATAZKA ETA EGOERA POLITIKOA	31	27	27	39	40	20	24	38	29	25	22
ETXEBIZITZA	19	28	17	18	20	16	19	20	17	14	19
ARAZO EKONOMIKOAK ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK	8	6	8	9	9	7	7	8	8	5	8
HIZKUNTZA EGOERAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK	3	3	3	3	4	2	3	3	2	2	3
INMIGRAZIOA	1	3	1	1	1	1	1	1	1	4	1
DELINKUENTZIA ETA SEGURITASUN FALTA	1	2	2	1	1	2	2	1	1	3	2
DROGAK	1	1	1	1	1	1	1	1	2	1	1
INGURUMENA	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0
BESTE BATZUK	1	1	1	1	1	1	1	1	1	0	1

* INKESTATUEK ESPONTANEOKI EMANDAKO ERANTZUNAK ONDOREN KODIFIKATU DIRA.

PORTZENTAJEEN BATURIA EZ DA 100, ARAZO BAKOITZA LEHENENGO EDO BIGARREN LEKUAN AIPATU DUTEN INKESTATU KOPURUA ADIERAZTEN DUTELAKO.

- Arabarrek eta bizkaitarrek gipuzkoarrek baino gehiago aipatzen dute indarkeria eta terrorismoa Euskal Herriko arazo garrantzitsuen bezala, hiru lurraldeetan hori bada ere gehien aipatutako arazoa. Gipuzkoan aldiz, Araban eta Bizkaian baino gehiago dira arazo larrientzat gatazka eta egoera politikoa aipatu dutenak. Honela, Gipuzkoan hori litzateke bigarren arazo garrantzitsuen, langabeziaren aurretik. Bizkaian, aipagarria da langabezia aipatu dutenen portzentaje altua (%47). Araban, beste lurraldeetan baino gehiago nabarmentzen da etxebizitzaren arazoa.
- Beren burua gehienbat espainiarizat dutenek eta euskal herritar bezain espainiarizat dutenek gehiagotan aipatzen dute indarkeria eta terrorismoa Euskal Herriko arazo garrantzitsuen bezala (%72k eta %69k aipatzen dute hurrenez hurren); gehienbat euskal herritar sentitzen direnek gutxiago aipatzen dute arazo hau (%43), baina horien artean ere, gehien aipatutakoa arazo hori da. Beren burua gehienbat euskal herritarizat dutenen artean, beste taldeetan baino gehiago dira gatazka eta egoera politikoa aipatu dutenak (%40).
- Esquindarrak dira indarkeria eta terrorismoaren arazoa gehien aipatu dutenak (%70), ondoren zentrokoak (%65) eta ondoren ezkertiarak (%50). Ezker-eskuin ardatzean zenbat eta ezker-ralderago kokatu euren burua, orduan eta gehiagotan aipatzen dituzte euskal gatazka eta egoera politikoa, langabezia eta etxebizitza. Honela, ezkertiarren artean erantzun desberdin gehiago daudela topatu dugu; zentrokoen eta eskuindarren artean berriz gehiengo oso zabal batek indarkeria eta terrorismoa du arazo nagusitzat eta oso aipamen gutxi egin dituzte beste arazo batzuei buruz.

Egoeraren balorazioa

Euskal Herriko eta Espainiako estatuko arazo nagusiak

(ALDERAKETA GEOGRAFIKOA)

Zure iritziz, zeintzuk dira Euskal Herriak / Espainiako estatuak dituen bi arazorik garrantzitsuenak? *


	EAE ES 03 URR	ESPAINIAKO ESTATUA CIS 03 IRA**
TERRORISMOA ETA INDARKERIA	56	46
LANGABEZIA.....	41	63
(EUSKAL HERRIKO) GATAZKA ETA EGOERA POLITIKOA.....	31	12
ETXEBIZITZA	19	12
ARAZO EKONOMIKOAK ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK.....	8	23
HIZKUNTZA EGOERAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK	3	-
INMIGRAZIOA	1	18
DELINKUENTZIA ETA SEGURTASUN FALTA.....	1	27
DROGAK	1	13
INGURUMENA	0	2
BESTE BATZUK	1	28

* INKESTATUEK ESPONTANEOKI EMANDAKO ERANTZUNAK ONDOREN KODIFIKATU DIRA.

PORTZENTAJEEN BATURA EZ DA 100, ARAZO BAKOITZA LEHENENGO EDO BIGARREN LEKUAN AIPATU DUTEN INKESTATU KOPURUA ADIERAZTEN DUTELAKO.

** CIS (BAROMETRO SEP2003): GUZTIZKOEN BATURA HANDIAGO DA ESTATUAN HIRU ARAZORI BURUZ GALDETU ZELAKO.

Eta zeintzuk dira, zuri pertsonalki, gehien eragiten dizuten bi arazoak?



- Espainiako estatuan ere terrorismoa eta langabezia dira gehien aipatutako arazoak, baina ordena alderantzizkoa da, hau da Estatuan arazorik garrantzitsuenak langabezia litzateke eta bigarren garrantzitsuenak terrorismoa.
- Aipagarria da delinkuentzia eta segurtasun falta, inmigrazioa eta drogak Estatu biziaren arazo larriak diren bitartean, EAEko biztanleek gutxi aipatu dituztela. EAEn aldiz, gehien aipatutako arazoetako bat egoera politikoa da eta Estatuan 8. arazoa litzateke garrantziaren arabera. Etxebizitza ere leku garrantzitsuagoa du EAEko biztanleen arazoaren artean (4.) Estatuokoen artean baino (7.).

Egoeraren balorazioa

Pertsonalki gehien eragiten duten arazoak

(GUZTIZKOAK)


Zeintzuk dira, zuri pertsonalki, gehien eragiten dizuten bi arazoak? *

	EAE ES 03 URR
LANGABEZIA.....	26
ETXEBIZITZA	20
ARAZO EKONOMIKOAK ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK.....	17
TERRORISMOA ETA INDARKERIA	14
EUSKAL HERRIKO GATAZKA ETA EGOERA POLITIKOA	11
HIZKUNTZA EGOERAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK	10
DELINKUENTZIA ETA SEGURTASUN FALTA.....	2
INMIGRAZIOA	1
DROGAK	1
BESTE BATZUK	1

* INKESTATUEK ESPONTANEOKI EMANDAKO ERANTZUNAK ONDOREN KODIFIKATU DIRA.

PORTZENTAJEEN BATURA EZ DA 100, ARAZO BAKOITZA LEHENENGO EDO BIGARREN LEKUAN AIPATU DUTEN INKESTATU KOPURUA ADIERAZTEN DUTELAKO.

Eta zeintzuk dira, zuri pertsonalki, gehien eragiten dizuten bi arazoak?



EAEKO BIZTANLEEI PERTSONALKI GEHIEN ERAGITEN DIETEN ARAZOAK LANGABEZIA (%26) ETA ETXEBIZITZA (%20) DIRA. ONDOREN BESTE ARAZO HAUEK DATOZ: ARAZO EKONOMIKOAK ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK (%17) ETA TERRORISMOA ETA INDARKERIA (%14).

EUSKAL HERRIKO GATAZKA ETA EGOERA POLITIKOA ETA HIZKUNTZA EGOERARI LOTUTAKO ARAZOAK DIRA BIZTANLEEN %11 ETA %10i PERTSONALKI GEHIEN ERAGITEN DIETENETAKO BATZUK. BESTE ARAZO BATZUK OSO GUTXIK AIPATU DITUZTE, HALA NOLA DELINKUENTZIA ETA SEGURTASUN FALTA, DROGAK ETA INMIGRAZIOA.

Egoeraren balorazioa

Pertsonalki gehien eragiten duten arazoak

(KOLEKTIBOKA)

Zeintzuk dira, zuri pertsonalki, gehien eragiten dizuten bi arazoak? *

	EAE ES 03 URR	LURRALDEA			ADIN TALDEAK				EUSKAL HERRITAR-ESPAINIAR ARDATZA		
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	18-29	30-45	46-64	>=65	BATEZ ERE EUSKAL HERRITARRA	E. HERRITARRA BEZAIN ESPAINIARRA	BATEZ ERE ESPAINIARRA
LANGABEZIA.....	26	25	29	21	40	27	22	10	25	28	20
ETXEBIZITZA	20	30	19	17	36	20	13	7	20	19	20
ARAZO EKONOMIKOAK ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK.....	17	13	18	17	15	16	14	23	18	15	19
TERRORISMOA ETA INDARKERIA	14	20	15	9	8	15	17	14	8	20	18
EUSKAL HERRIKO GATAZKA ETA EGOERA POLITIKOA	11	11	8	16	8	12	12	11	15	6	7
HIZKUNTZA EGOERAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK	10	7	13	6	10	10	9	11	11	11	6
DELINKUENTZIA ETA SEGURTASUN FALTA.....	2	2	2	0	1	1	3	2	1	2	3
INMIGRAZIOA	1	2	0	1	1	2	0	0	1	1	1
DROGAK.....	1	1	0	1	0	1	1	0	0	1	1
BESTE BATZUK	1	1	1	1	2	2	1	0	1	1	2

* INKESTATUEK ESPONTANEOKI EMANDAKO ERANTZUNAK ONDOREN KODIFIKATU DIRA.

PORTZENTAJEEN BATURA EZ DA 100, ARAZO BAKOITZA LEHENENGO EDO BIGARREN LEKUAN AIPATU DUTEN INKESTATU KOPURUA ADIERAZTEN DUTELAKO.

- Arabarrei, bizkaitarrei eta gipuzkoarrei baino gehiago eragiten die etxebizitzaren arazoak (%30) eta indarkeria eta terrorismoak (%20) eta gutxiago eragiten diete arazo ekonomikoak eta desberdintasun sozialek (%13). Bizkaian gainerako lurraldeetan baino gehiago aipatu dituzte pertsonalki gehien eragiten dieten arazotzat langabezia eta hizkuntza egoerarekin lotutakoak (%29 eta %13 hurrenez hurren) eta Gipuzkoan aldiz beste lurraldeetan baino gehiago aipatu da gatazka eta egoera politikoa (%16).
- Adinak ere badu zerikusirik herritarrei pertsonalki gehien eragiten dieten arazoekin. 45 urtetik beherakoek bereziki aipatzen dituzte langabezia eta etxebizitzaren arazoa. 46-64 urte dituzten artean, langabezia gehien eragiten dien arazo bezala mantentzen da, baina etxebizitzak garrantzia galtzen du eta beste arazo batzuk, hala nola terrorismoa eta indarkeria eta arazo ekonomikoak eta desberdintasun sozialek, gehiago aipatzen dira. 65 urtetik gorakoek arazo ekonomikoak eta desberdintasun sozialek eragiten diete gehien pertsonalki.
- Beren burua euskal herritar bezain espainiarizat dutenek eta gehienbat espainiarizat dutenek gainerakoek baino gehiago aipatzen dute indarkeria eta terrorismoa gehien eragiten dien arazo bezala, nahiz eta hauen artean ere langabezia den arazorik aipatuena. Beren burua gehienbat euskal herritarizat dutenek, gainerakoek baino gehiago aipatzen dute gatazka eta egoera politikoa. Hizkuntza egoerari lotutako arazoak gainerakoek baino gehiago aipatzen dituzte gehienbat euskal herritar sentitzen direnek eta euskal herritar bezain espainiar sentitzen direnek.

Egoeraren balorazioa

Pertsonalki gehien eragiten duten arazoak

(ALDERAKETA GEOGRAFIKOA)

Zeintzuk dira, zuri pertsonalki, gehien eragiten dizuten bi arazoak? *


	EAE ES 03 Urr	ESPAINIAKO ESTATUA CIS 03 Ira**
LANGABEZIA.....	26	37
ETXEBIZITZA	20	13
ARAZO EKONOMIKOAK ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK	17	31
TERRORISMOA ETA INDARKERIA	14	14
(EUSKAL HERRIKO) GATAZKA ETA EGOERA POLITIKOA.....	11	6
HIZKUNTZA EGOERAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK	10	-
DELINKUENTZIA ETA SEGURTASUN FALTA.....	2	20
INMIGRAZIOA	1	8
DROGAK	1	6
INGURUMENA	0	2
BESTE BATZUK	1	32

* INKESTATUEK ESPONTANEOKI EMANDAKO ERANTZUNAK ONDOREN KODIFIKATU DIRA.

PORTZENTAJEEN BATURA EZ DA 100, ARAZO BAKOITZA LEHENENGO EDO BIGARREN LEKUAN AIPATU DUTEN INKESTATU KOPURUA ADIERAZTEN DUTELAKO.

** CIS (BAROMETRO SEP2003): GUZTIZKOEN BATURA HANDIAGO DA ESTATUAN HIRU ARAZORI BURUZ GALDETU ZELAKO.

Eta zeintzuk dira, zuri pertsonalki, gehien eragiten dizuten bi arazoak?



EAEko herritarrak eta estatukoak bat datoz pertsonalki gehien eragiten dien arazoa langabezia dela esatean. Hala ere, EAEkoentzat bigarren arazoa etxebizitzarena litzateke, Estatuarentzat 5. litzatekeen bitartean, arazo ekonomiko eta desberdintasuna sozialak, segurtasun falta eta terrorismoa eta indarkeriaren atzetik. Egoera politikoak leku garrantzitsuagoa du EAEko herritarrei gehien eragiten dietenen artean (5.) Estatuarentzat baino (7.).

Egoeraren balorazioa

Demokraziaren funtzionamendua Euskal Herrian eta Espainiako estatuan

(GUZTIZKOAK)

Oro har, zu oso pozik, nahikoa pozik, ez oso pozik, ala ez zaude batere pozik Euskal Herrian demokraziak duen funtzionamenduarekin?

	EAE ES 02 URR	EAE ES 03 URR
OSO POZIK.....	4	3
NAHIKOA POZIK.....	28	33
EZ OSO POZIK.....	40	39
BATERE POZIK EZ.....	21	19
ED/EE.....	7	7
POZTASUN BALANTZEA*	-29	-22


Oro har, zu oso pozik, nahikoa pozik, ez oso pozik, ala ez zaude batere pozik Espainiako estatuan demokraziak duen funtzionamenduarekin?

	EAE ES 02 URR	EAE ES 03 URR
OSO POZIK.....	4	1
NAHIKOA POZIK.....	28	23
EZ OSO POZIK.....	36	34
BATERE POZIK EZ.....	26	31
ED/EE.....	7	11
POZTASUN BALANTZEA*	-30	-41
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100

* POZTASUN BALANTZEA: POZIK DAUDENEN % (OSO POZIK+NAHIKOA POZIK) – POZIK EZ DAUDENEN % (EZ OSO POZIK+BATERE POZIK EZ)

- EAEKO BIZTANLEAK EZ DAUDE POZIK DEMOKRAZIAK EUSKAL HERRIAN ETA BATEZ ERE ESTATUAN DUEN FUNTZIONAMENDUAREKIN. BIZTANLEEN %36K DIOTE EUSKAL HERRIKO DEMOKRAZIAREN FUNTZIONAMENDUAREKIN OSO EDO NAHIKOA POZIK DAUDELA ETA %58K EZ OSO POZIK EDO BATERE POZIK EZ DAUDELA. ESTATUKO DEMOKRAZIARI DAGOKIONEAN %24 BAKARRIK DAUDE OSO EDO NAHIKOA POZIK ETA %65EK ESAN DUTE EZ DAUDELA OSO POZIK EDO EZ DAUDELA BATERE POZIK.
- Euskal Herrian demokraziak duen funtzionamenduarekiko poztasun mailak, negatiboa izanik ere, hobera egin du pixka bat azken hamabi hilabeteotan, balantzea -29tik -22ra pasa delarik. Espainiako estatuko demokraziaren funtzionamenduarekiko poztasun mailak aldiz okerrera egin du duela urtebeteko neurketatik hona. Balantzea -30tik -41 izatera pasa da.

Demokraziaren funtzionamendua Euskal Herrian eta Espainiako estatuan



Egoeraren balorazioa

Demokraziaren funtzionamendua Euskal Herrian eta Espainiako estatuan

(KOLEKTIBOKA)

Oro har, zu oso pozik, nahikoa pozik, ez oso pozik, ala ez zaude batere pozik Euskal Herrian demokraziak duen funtzionamenduarekin?

	EAE ES 03 URR	LURRALDEA			EUSKAL HERRITAR-ESPAINIAR ARDATZA			BEGIKOTASUN POLITIKOA*											
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	BATEZ ERE EUSKAL HERRITARRA	E. HERRITARRA BEZAIN ESPAINIARRA	BATEZ ERE ESPAINARRA	EAJ/ PNV	PP	PSE- EE	EZKER ABERTZAL- EKO BESTE	ARALAR	EA	IU	UA	BESTE BATZUK	BAT ERE EZ	DENAK	Ed/Ee
OSO POZIK.....	3	3	3	3	4	2	1	5	2	2	2	2	7	2	0	0	1	1	2
NAHIKOA POZIK	33	40	36	26	34	35	25	47	21	35	10	26	36	33	68	11	32	33	27
EZ OSO POZIK	39	35	38	41	36	43	37	34	46	42	42	46	34	45	32	40	37	40	36
BATERE POZIK EZ.....	19	17	18	22	21	14	27	9	26	16	44	26	16	16	0	45	19	20	22
Ed/EE.....	7	6	6	7	4	7	10	5	5	6	2	0	7	4	0	5	10	7	14
POZTASUN BALANTZEA**.....	-22	-9	-17	-34	-19	-20	-38	9	-49	-21	-74	-44	-7	-26	36	-74	-23	-26	-29

Oro har, zu oso pozik, nahikoa pozik, ez oso pozik, ala ez zaude batere pozik Espainiako estatuan demokraziak duen funtzionamenduarekin?

OSO POZIK.....	1	1	1	1	1	2	2	0	5	1	1	0	1	0	0	0	1	0	1
NAHIKOA POZIK	23	32	23	18	12	33	39	17	46	33	3	12	11	15	34	6	26	24	28
EZ OSO POZIK	34	36	34	33	31	38	32	36	26	40	24	32	30	46	66	28	33	36	32
BATERE POZIK EZ.....	31	22	30	35	45	18	16	35	15	16	64	49	44	31	0	50	26	30	21
Ed/EE.....	11	8	11	13	11	10	12	11	8	10	8	7	13	8	0	17	14	9	18
POZTASUN BALANTZEA**.....	-41	-25	-40	-49	-63	-21	-7	-54	10	-22	-84	-69	-62	-62	-32	-72	-32	-42	-24
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* UAREN ETA BESTE ALDERDI BATZUEN JARRAITZAILEEN KOPURUAK OSO TXIKIAK DIRENEZ, EUREI DAGOZKIEN DATUAK EZ DIRA KOMENTATU ETA KONTU HANDIZ IRAKURRI BEHAR DIRA.

** POZTASUN BALANTZEA: POZIK DAUDENEN % (OSO POZIK+NAHIKOA POZIK) – POZIK EZ DAUDENEN % (EZ OSO POZIK+BATERE POZIK EZ)

Lurralde guztietan gehiago dira demokraziaren funtzionamenduarekiko pozik ez daudenak pozik daudenak baino, bai Euskal Herriko demokraziari dagokionean baita Estatuokari dagokionean ere. Estatuko demokraziarekiko poztasun falta handiagoa da kasu guztietan Euskal Herriko demokraziarekikoa baino. Gipuzkoarrak dira poztasunik txikiena adierazten dutenak, ondoren bizkaitarrak eta azkenik arabarrak.

Euskal Herriko demokraziaren funtzionamenduarekiko poztasun maila txikiena adierazi dutenak, beren burua gehienbat espainiartzat dutenak dira, -38ko balantzea dutelarik; beren burua euskal herritar bezain espainiartzat dutenak -20ko balantzea dute, eta gehienbat euskal herritar sentitzen direnak -19koa. Estatuko demokraziaren funtzionamenduarekiko alderantzizko joera dago: poztasunik txikiena adierazten dutenak beren burua gehienbat euskal herritartzat dutenak dira (-63ko balantzea), ondoren euskal herritar bezain espainiar sentitzen direnak (-21eko balantzea) eta azkenik gehienbat espainiarrak direnak (-7).

EAJ-PNVren jarraitzaileek osatzen dute Euskal Herriko demokraziaren funtzionamenduarekiko pozik daudenen talde bakarra (9ko balantzea). EArenek poztasun falta txiki bat adierazten dute, pozik daudenek eta ez daudenek antzerako kopuruak dituztelarik (-7ko balantzea). PSE-EE eta IU-EBren jarraitzaileek tarteko iritziak adierazten dituzte, poztasun falta orokorraren barruan beti ere (-21 eta -26ko balantzeak) eta azkenik poztasun falta handiena dutenak Aralarren jarraitzaileek, PPrenek eta batez ere ezker abertzaleko beste taldeen adierazi dute (-44, -49 eta -74 hurrenez hurren). Estatuko demokraziaren funtzionamenduari dagokionean, PPren jarraitzaileak dira pozik dauden bakarrak. PSE-EEkoek poztasun falta handi xamarra adierazten dute eta EAJ-PNV, EA, IU-EB, Aralar eta ezker abertzaleko beste taldeen jarraitzaileak ez daude batere pozik.

Egoeraren balorazioa

Administrazioarekiko poztasun maila

(GUZTIZKOAK)

Oro har, pozik zaude ala ez....?

	EAE JJ 1989	EAE JJ 1990	EAE JJ 1991	EAE JJ 1992	EAE JJ 1993	EAE JJ 1994	EAE ES 1995	EAE ES 1996	EAE ES 1997	EAE ES 1998	EAE ES 1999	EAE ES 2000	EAE ES 2001	EAE ES 2002	EAE ES FEB 03	EAE ES ABR 03	EAE ES 03 URR
ZURE HERRIKO/HIRIKO UDALAREKIN																	
POZIK.....	-	-	-	-	-	-	69	69	64	65	67	70	71	69	67	65	67
Ez POZIK.....	-	-	-	-	-	-	25	25	27	26	25	24	22	25	27	29	27
Ed/Ee.....	-	-	-	-	-	-	6	6	9	9	8	6	7	6	6	7	6
POZTASUN BALANTZEA*.....	-	-	-	-	-	-	44	44	37	39	42	46	49	44	40	36	40
DIPUTAZIOAREKIN																	
POZIK.....	-	-	-	-	-	-	64	65	61	61	64	67	71	69	66	64	65
Ez POZIK.....	-	-	-	-	-	-	20	19	20	20	18	18	15	17	20	21	20
Ed/Ee.....	-	-	-	-	-	-	15	16	19	20	18	15	14	15	14	15	15
POZTASUN BALANTZEA*.....	-	-	-	-	-	-	44	46	41	41	46	49	56	52	46	43	45
EUSKO JAURLARITZAREKIN																	
POZIK.....	55	55	51	51	50	59	63	64	58	59	64	65	67	66	62	64	61
Ez POZIK.....	34	31	34	38	37	29	28	24	25	25	23	24	22	23	29	26	28
Ed/Ee.....	11	14	15	11	13	12	9	11	17	16	13	11	11	11	9	10	11
POZTASUN BALANTZEA*.....	21	24	17	13	13	30	35	40	33	34	41	41	45	43	33	38	33
ESPAINIAKO GOBERNUAREKIN																	
POZIK.....	27	26	27	22	19	-	24	32	31	31	33	33	36	35	28	27	25
Ez POZIK.....	62	58	58	67	70	-	64	50	42	44	46	49	46	51	61	61	58
Ed/Ee.....	11	16	15	11	11	-	12	19	27	25	22	18	18	15	10	13	16
POZTASUN BALANTZEA*.....	-35	-32	-31	-45	-51	-	-40	-18	-11	-13	-13	-16	-10	-16	-33	-34	-33
EUROPAKO GOBERNUAREKIN (EUROPAKO KOMISIOAREKIN)																	
POZIK.....	-	-	-	-	-	-	26	30	26	30	33	32	36	38	34	31	29
Ez POZIK.....	-	-	-	-	-	-	34	29	24	24	26	29	26	29	35	35	30
Ed/Ee.....	-	-	-	-	-	-	40	41	50	46	42	39	38	33	31	35	41
POZTASUN BALANTZEA*.....	-	-	-	-	-	-	-8	1	2	6	7	3	10	9	-1	-4	-1
(EHUNeko BERTIKALAK)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* POZTASUN BALANTZEA: POZIK – Ez POZIK

BALORAZIORIK ONENA FORU ALDUNDIEI, UDALEI ETA EUSKO JAURLARITZARI BURUZ EGITEN DA (POZTASUN BALANTZEA 45, 40 ETA 33 DA HURRENEZ HURREN). POZTASUN MAILARIK TXIKIENA ESPAINIAKO GOBERNUAREKIKOA DA, -33KO BALANTZEA DUELARIK, AURTENGO OTSAILEAN JASOTAKO BERA. IZAN ERE, HAUXE DA AZKEN 8 URTEETAN JASO DUEN BALORAZIORIK TXARRENA. EAEKO BIZTANLEAK EUROPAKO KOMISIOAREKIKO EZ DIRA OSO POZIK AZALTZEN (-1EKO POZTASUN BALANTZEA), BAINA BIZTANLERIAREN ZATI HANDI BATEK (%41) EZ DU ERAKUNDE HORRI BURUZKO IRITZIRIK ADIERAZI.

Administrazio desberdinekiko poztasun maila ez da asko aldatu aurtengo otsailetik hona. Administrazio guztiekiko poztasun maila jaitsi egin da 2001etik hona, hura izan zelarik administrazio gehienek azken urteetako baloraziorik onena jaso zuten momentua.

Egoeraren balorazioa

Administrazioarekiko poztasun maila

(KOLEKTIBOKA)

Oro har, pozik zaude ala ez

	EAE ES 03 URR	LURRALDEA			BEGIKOTASUN POLITIKOA*												
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAJ/ PNV	PP	PSE- EE	EZK. ABERTZAL- EKO BESTE	ARALAR	EA	IU	UA	BESTE* BATZUK	BAT ERE EZ	DENAK	Ed/Ee	
ZURE HERRIKO/HIRIKO UDALAREKIN																	
Pozik.....	67	57	70	66	74	71	74	40	52	64	64	68	41	66	72	67	
Ez pozik.....	27	36	24	28	21	19	22	54	46	31	32	32	40	28	23	24	
Ed/Ee.....	6	7	6	6	5	10	4	6	2	6	5	0	19	6	5	9	
POZTASUN BALANTZEA**	40	21	46	38	53	52	52	-14	6	33	32	36	1	38	49	43	
DIPUTAZIOAREKIN																	
Pozik.....	65	57	69	62	77	67	67	38	53	70	61	68	31	59	69	65	
Ez pozik.....	20	31	16	21	13	15	18	46	35	16	19	7	37	21	17	17	
Ed/Ee.....	15	12	15	17	9	18	15	16	12	13	20	25	32	19	14	18	
POZTASUN BALANTZEA**	45	26	53	41	64	52	49	-8	18	54	42	61	-6	38	52	48	
EUSKO JAURLARITZAREKIN																	
Pozik.....	61	61	63	57	84	42	53	36	58	77	56	68	52	55	63	53	
Ez pozik.....	28	29	25	33	11	42	37	54	39	13	34	7	39	29	22	29	
Ed/Ee.....	11	10	12	10	5	17	11	10	2	10	9	25	9	15	15	18	
POZTASUN BALANTZEA**	33	32	38	24	73	0	16	-18	19	64	22	61	13	26	41	24	
ESPAINIAKO GOBERNUAREKIN																	
Pozik.....	25	33	26	20	16	57	34	4	8	9	12	34	19	30	29	37	
Ez pozik.....	58	53	55	67	71	20	48	91	86	73	76	66	60	48	53	42	
Ed/Ee.....	16	14	19	13	13	23	18	5	6	19	12	0	21	21	18	20	
POZTASUN BALANTZEA**	-33	-20	-29	-47	-55	37	-14	-87	-78	-64	-64	-32	-41	-18	-24	-5	
EUROPAKO GOBERNUAREKIN (EUROPAKO KOMISIOAREKIN)																	
Pozik.....	29	34	30	25	28	40	40	8	18	24	18	0	8	30	26	38	
Ez pozik.....	30	28	29	35	29	18	22	59	54	26	43	32	41	28	36	21	
Ed/Ee.....	41	39	41	40	43	42	38	33	28	49	39	68	51	42	38	41	
POZTASUN BALANTZEA**	-1	6	1	-10	-1	22	18	-51	-36	-2	-25	-32	-33	2	-10	17	
(EHUNEKO BERTIKALAK)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	

* UAREN ETA BESTE ALDERDI BATZUEN JARRAITZAILEEN KOPURUAK OSO TXIKIAK DIRENEZ, EUREI DAGOZKIEN DATUAK EZ DIRA KOMENTATU ETA KONTU HANDIZ IRAKURRI BEHAR DIRA.

** POZTASUN BALANTZEA: POZIK – EZ POZIK

Bizkaitarrak dira euren udalekiko poztasun mailarik handiena agertzen dutenak (46ko poztasun balantzea), baita Foru Aldundiarekiko (53) eta Eusko Jaurlaritzarekiko ere (38). Arabarrak dira aldiz baloraziorik positiboena egiten dutenak Espainiako gobernuari buruz (-20) eta Europako Komisioari buruz (6). Gipuzkoarren artean esanguratsuen da Eusko Jaurlaritzarekiko besteek baino poztasun maila txikiagoa adierazten dutela (24) eta Espainiako Gobernuarekiko poztasun falta bereziki orokorra dela (-47).

Udalekiko poztasun handiena adierazten dutenak EAJren jarraitzaileak (53ko balantzea), PPrenak (52) eta PSE-EErenak (52) dira. Diputazioekiko ere EAJren jarraitzaileak dira poztasun handiena adierazten dutenak (64), ondoren EArenak (54), PPrenak (52) eta PSE-EErenak (49). Eusko Jaurlaritzarekiko pozen daudenak EAJkoak (73) eta EAKoak (64) dira. Euskal administrazioekiko pozik agertzen dira talde guztien jarraitzaileak, ezker abertzaleko beste talde batzuenak ez beste (horiek kasu guztietan balantze negatiboa dute). Espainiako Gobernuak aldiz balantze negatiboa jasotzen du talde guztiengandik, salbu eta PPren jarraitzaileak (37). Europako Komisioari buruz berriz, pozik azaltzen diren bakarrak PPren eta PSE-EEren jarraitzaileak dira, baina talde guztietan nabarmenena erantzuten ez dutenen portzentaje altua da. Aipatzekoa da ezker abertzaleko beste talde batzuen jarraitzaileek administrazio guztiekiko adierazten duten poztasun falta handia.

Egoeraren balorazioa

Bizitza Euskal Autonomia Erkidegoan

(GUZTIZKOAK)


Bizitza eta lan baldintza berak izango bazenitu, non nahiago zenuke bizitzea?

	EAE IDE 97 MAR*	EAE TEF 00 AZA**	EAE ES 01 URR	EAE ES 03 URR
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN.....	86	83	85	85
ESTATUKO GAINONTZEKO LURRALDEETAN..	7	10	6	5
ATZERRIAN.....	1	2	2	2
BERDIN ZAIT.....	5	3	6	6
Ed/Ee.....	1	2	1	3
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100

* IDE 97 MAR: EUSKO JAURLARITZAKO PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEAK EGINDAKO "IDENTIDAD VASCA" IKERKETA

** TEF 00 AZA: EUSKO JAURLARITZAKO PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEAK EGINDAKO "SITUACIÓN SOCIOPOLÍTICA DEL PAÍS VASCO" INKESTA TELEFONIKOA.

Bizitza eta lan baldintza berak izango bazenitu, non nahiago zenuke bizitzea?



EAEKO BIZTANLEEN %85 EZ LIRATEKE BESTE LEKU BATETARA JOANGO BIZITZERA, BIZI ETA LAN BALDINTZA BERBERAK MANTENTZEKO AUKERA EDUKITA ERE. EAEKO HERRITARREN %5EK NAHIAGO LUKETE ESPAINIAKO ESTATUKO BESTE LEKU BATEAN BIZITZEA ETA %2K ATZERRIKO BESTE LEKU BATEAN. %6RI BERDIN IZANGO LITZAIKE.

EAEko biztanleek beren bizilekuari buruz dituzten nahiak ez dira ia aldatu 1997tik hona.

Egoeraren balorazioa

Bizitza Euskal Autonomia Erkidegoan

(KOLEKTIBOKA)

<i>Bizitza eta lan baldintza berak izango bazenitu, non nahiago zenuke bizitzea?</i>											
	EAE ES 03 Urr	EUSKARAREN JAKINTZA			EUSKAL HERRITAR-ESPANIAR ARDATZA			JATORRIA			
		Ez	ZERBAIT	BAI	BATEZ ERE EUSKAL HERRITARRA	E. HERRITARRA BEZAIN ESPANIARRA	BATEZ ERE ESPANIARRA	ETORKINA	BERTAKOA, FAMILIA ETORKINA	BERTAKOA, FAMILIA MISTOA	BERTAKOA, FAMILIA BERTAKOA
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN	85	80	85	91	95	81	65	76	80	89	92
ESTATUKO GAINONTZEKO LURRALDEETAN	5	7	4	2	1	4	18	9	5	3	2
ATZERRIAN	2	1	2	1	1	2	1	2	2	3	1
BERDIN ZAIT	6	8	7	4	2	9	12	10	10	4	3
ED/EE	3	3	3	2	1	4	3	3	3	2	2
(EHUNEKO BERTIKALAK).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

- Euskararen ezagutza mailak badu loturirik bizitzeko lekuari buruzko nahiekin. Talde guztietan EAEn bizitzeko nahia gehiago zabalak adierazi badu ere, euskaraz ez dakitenek aldekotasan handiagoa adierazten dute Espainiako estatuan bizitzeko, pixka bat dakitenek eta ongi dakitenek baino (%7, %4 eta %2 hurrenez hurren).
- Euskal herritar edo espainiar sentimendua ere lotuta dago bizilekuarekiko nahiari. Talde guztietan gehiago handia osatzen badute ere EAEn gelditzea nahiago dutenek, badira alde txikiak: beren burua gehienbat euskal herritartzat dutenen artean nahi hori oso orokorra da (%85). Euskal herritar bezain espainiar sentitzen direnen artean %81ek EAEn gelditu nahi du, baina %4k Espainiako estatuko beste leku batean bizitzea nahiago lukete eta %9i berdin zaie. %2k bakarrik aukeratuko lukete atzerrian bizitzea. Beren burua gehienbat espainiartzat dutenen artean, %65 EAEn geldituko lirateke, baina %18k Espainiako estatuko beste leku batean bizitzea nahiago lukete, bizi eta lan baldintza berberak balituzte. Azken talde horretan %12 dira berdin izango litzaiekeenak.
- Jatorriak ere badu bizilekuari buruzko nahiarekin harremanik; talde guztietan gehiengoak EAEn gelditzeko nahia adierazi badu ere, portzentaje hori %76koa da etorkinen artean eta %92koa EAEn edo Nafarroan sortu eta gurasoak ere bertakoak dituztenen artean.